# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2000ko urtarrilaren 4an | 1 ZK.


**A U R K I B I D E A**


A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

—Zerga neurriei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (32. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko abenduaren 28an egindako Osoko Bilkuran, 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzrreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea

### I. TITULUA
### Kredituak eta haien aldaketak

### I. KAPITULUA
### Hasierako kredituak eta horien finantzaketa.

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

Onetsi egin dira 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Honako atalak dituzte:

a) Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak.

c) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantza egoerak ere.

**2. artikulua.** Kreditu eta eskubide ekonomikoen kopurua.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen gastuen egoeretan sartutako programak burutzeko, 57.673.273.000 pezetako kopuru bateratua duten kredituak onetsi dira.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen dirusarreren egoeretan, aurrekontu ekitaldian ustez likidatuko diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak agertzen dira, hain zuzen ere, 57.673.273.000 pezetako kopuru bateratua.

### II. KAPITULUA
### Aurrekontuetako kredituen aldaketa

**3. artikulua.** Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen aginduei lotuko zaizkie, baldin eta Foru Lege honek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko kontusailen arteko fondo mugimenduak, kontusail horietan helburu berbera duten kredituak baldin badira, Europako Batasunak eskatu duelako soilik bereizten direnak, gastuak nora doazen hobeto kontrolatu ahal izateko Europako Batasunak zati batean finantziatzen dituelako.

Orobat, ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko hurrengo programako kontusailen arteko fondo mugimenduak: 52. programa, “Su-itzaltzea eta salbamendua”, baldin eta plantilla-aldaketen ondoriozkoak badira, funtzionarioen atxikipena aldatu egin delako “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren” eta “Suitzaltze eta Salbamendurako Partzuergoaren” artean. Lehendakaritza Justizi eta Barne kontseilariari ahalmena eman zaio aipatu mugimenduak baimentzeko.

**4. artikulua.** Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a) letratik f) letrara bitartean aipatutako kredituez gain, 2000. urteko ekitaldian ondoko kredituek ere gehikuntzarik izaten ahal dute:

1. Lehendakaritza Justizi eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 00200-2339-1122 kontusaila, 12000 proiektua, “Kontseiluko kideei eta beste aditu batzuei eskatutako txostenei direla-eta, haientzako kalteordainak” izenekoa.

b) 04000-1620-1226 kontusaila, 20000 proiektua, “1999rako KPIarekiko aldentzea ordainketetan eguneratzea” izenekoa.

c) 04000-1620-1226 kontusaila, 20000 proiektua, “1998rako aurreikusi KPIa eta benetakoaren arteko aldearen paga” izenekoa.

d) 04000-1620-1226 kontusaila, 20000 proiektua, “35 orduko lanaldia ezartzeko dotazioa” izenekoa.

e) 04300-1309-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Aldi baterako kontratuen bukaerako kalteordaina” izenekoa.

f) 04000-1709-1226, 20002 proiektua, “Epaiak betearaztea”, epai horietan ezartzen diren zenbatekoak.

Betearazte horrek I. kapitulu ekonomikoari ez dagokion gasturik ekartzen baldin badu, horretarako kontusail berarizkoa gaitzen ahalko da; horrek ere izaera gehigarria izanen du. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidiarioa Nafarroako Gobernuaren esku izatean fondo ekonomikoak egotea beharrezkoa gertatzen denean, baita Zerga Gaietarako Txosten eta Ebazpen Organoarenak eta Zerga Administrazioaren organo kudeatzailearenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta era berean, Ezinbesteko Desjabetzapenerako Probintzi Epaimahaiaren erabakiak ere, eta Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen FEOGA-Bermearen laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak ere.

g) 04120-1001-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Lehendakari ohi eta kontseilari ohientzako prestazioak” izenekoa.

h) 04120-1239-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Funtzionarioen famili laguntza, osagarri berriak, itzultzeak, eszedentziak eta beste batzuk” izenekoa.

i) 04120-1309-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Lan kotratudunen familia laguntza, osagarri berriak, itzultzeak eszedentziak eta beste batzuk” izenekoa.

j) 04120-1614-3141 kontusaila, 20002 proiektua, “Aldez aurretik jubilatzeagatik jaso beharreko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua” izenekoa.

k) 04120-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, “Lan-istripuengatiko aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea” izenekoa.

l) 04120-1700-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Kalteordaina. Derrigorrezko leku aldaketa, bizilekuaren aldaketa eta guzti” izenekoa.

m) 04120-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, “Lan-istripuengatiko kalteordaina” izenekoa.

n) 04200-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, “Osasun laguntza-erabilera berezia” izenekoa.

ñ) 04300-1709-1226 kontusaila, 20002 proiektua, “Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena” izenekoa .

o) 02400-4809-2211 kontusaila, 50002 proiektua, “Dirulaguntzak” izenekoa eta 02400-8319-2211 kontusaila, proiektu berekoa, “Maileguak” izenekoa.

p) 2100-6021-2-2221 kontusaila, 51001 proiektua, “Tuterako komisariako obrak” izenekoa.

q) 06000-6001-1441, 60000 proiektua, “Espetxe berria eraikitzeko lurrak erostea” izenekoa.

r) 06000-4459-1421, 60001 proiektua, “Abokatuen Elkargoari transferentzia, atxilotuei dohaineko laguntza emateagatik” izenekoa.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko hurrengo kontusailak:

a) 11410-9500-6331 kontusaila, 12001 proiektua, “Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua” izenekoa.

b) 11300-6020-6127 kontusaila, 14002 proiektua, “Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezina birmoldatzea eta janztea”.

c) 11300-8500-6127 kontusaila, 14002 proiektua, “Alor publikoko akzioak erostea” izenekoa.

d) 11100-2269-9111 kontusaila, 30000 proiektukoa, “Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak” izenekoa.

3. Toki Administrazioko Departamentuko kontusailok:

a) 21100-4600-9129 kontusaila, 10002 proiektua, “Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuak sustatzea” izenekoa.

b) 21100-7600-9129 kontusaila, 10002 proiektua, “Toki Erakundeetako

administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea” izenekoa.

c) 21120-8206-1242 kontusaila, 11000 proiektua, “Udal funtzionarioen montepioa kudeatzea” izenekoa.

d) 21220-4600-9125 kontusaila, 11001 proiektua, “Toki entitateen arazoei aurre egiteko finantza-laguntzak” izenekoa.

e) 21300-7600-4411 kontusaila, 12001 proiektua, “Ibaiak Arazteko eta Osasuntzeko Plan Zuzentzailea” izenekoa, behean aipatzen diren obrei 2000. urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin; alegia, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioko Departamentuak izenpetu duten Hitzarmenean, Hiri Urbeltzak Saneatu eta Arazteko Plan Nazionaleko Jarduketei buruzkoan, diren obrak, Europako Batasuneko Kohesio Fondoen kontura finantziatzeko proiektuen arabera.

f) 21300-7600-4111 kontusaila, 12002 proiektua, “Hitzarmenak, toki entitateek zerbitzuak emateko egiten dituzten elkarteei laguntza bereziak emateko; hain zuzen, hiru urteko planen barrenean dauden azpiegiturak egiteko laguntzak” izenekoa.

g) 21300-7600-4421 kontusaila, 12002 proiektua, “Arga ibaiko eskualde-plana” izenekoa.

h) 21300-7600-9122 kontusaila, 12002 proiektua, "Eskualde behartsuetako azpiegituren plan berezia" izenekoa.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 32200-4459-4311 kontusaila, 2000 proiektua, “Zaharberritze bulegoei laguntzak” izenekoa.

b) 32200-6000-4311 kontusaila, 2000 proiektua, “Lurra erosi eta etxebizitzak eta eraikinak sustatzea” izenekoa.

c) 32200-6000-2-4311 kontusaila, 2000 proiektua, “Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzea, eta lurzoruak, eraikinak eta etxebizitzak eskaintzea” izenekoa.

d) 32200-4709-4421 kontusaila, 30000 proiektua, “Kalte-ordainak” izenekoa.

e) 32220-7800-4312 kontusaila, 20000 proiektua, “Etxebizitzen alorreko jarduketetarako dirulaguntzak eta sorospenak. Foru Programa” izenekoa.

5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontusailok:

a) 41000-1239-2-4211 kontusaila, 00000 proiektua, “Zerbitzuen aitorpenerako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena” izenekoa.

b) 41120-6001-4241 kontusaila, 10000 proiektua, “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako desjabetzapenak” izenekoa, desjabetutako lurrak itun bidez zehazten den prezioan ordaintzea bermatzeko adinako zenbatekoan.

c) 41610-4600-4229 kontusaila, 10000 proiektua, “Udal kontserbatorioentzako dirulaguntza” izenekoa.

d) 41610-4600-2-4229 kontusaila, 10000 proiektua, “Udaletako musika-eskolentzako dirulaguntza” izenekoa.

e) 10001 proiektuan dagokion kontusaila, “Gutxiengo etnikoak eskolatzeko eta aniztasunaz bereziki arduratzeko programak dauzkaten ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak, bai ekipamenduetarako bai obra txikiak egiteko” izenekoa.

f) 10001 proiektuan dagokion kontusaila, “Tafallako eta Berako ikastoletako obrak” izenekoa.

g) 41110-4600-4222 kontusaila, 10002 proiektua, “Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urteko haurrak eskolatzeko”.

h) 41110-4600-4222 kontusaila, 10002 proiektua, “Departamentuak haurrak eskolatzeko erabilitako udal eraikin eta eskola-konzentrazioetarako dirulaguntza”

i) 41110-4600-4222 kontusaila, 10002 proiektua, “Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urteko haurrak eskolatzeko”.

j) 41110-4800-4251 kontusaila, 10002 proiektua, “Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak” izenekoa, beka deialdiaren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek haien onura izan dezaten bermatzeko adinako zenbatekoan.

k) 41620-4800-3-4251 kontusaila, 10002 proiektua, “Liburuak erosteko laguntza” izenekoa

l) 41110-2210-4552 kontusaila, 10004 proiektua, “Jantokiak” izenekoa.

m) 41110-2230-4252 kontusaila, 10004 proiektua, “Eskola garraioa” izenekoa.

n) 40300-2230-4224 kontusaila, 40000 proiektua, “Unibertsitate ikastetxeetarako garraioa” izenekoa.

ñ) 40300-4800-4251 kontusaila, 40000 proiektua, “Prestakuntza eta Ikerketa eta Garapena (I+G) Planaren laguntzak” izenekoa.

o) 40300-7455-4224 kontusaila, 40000 proiektua, “Nafarroako Unibertsitate Publikoari kapital transferentziak” izenekoa.

p) 42000-7600-4511 kontusaila, 50000 proiektua, “Kultur etxeen eta udaleko beste kultur gune batzuen eraikuntza eta ekipamendua” izenekoa.

q) 42110-4816-4561 kontusaila, 51000 proiektua, “Hitzarmenak entitate artistikoekin eta kulturalekin” izenekoa.

r) 42100-7600-4511 kontusaila, 51000 proiektua, “Gaztambide antzokia eraberritza” izenekoa.

s) 52000 proiektuan dagokion kontusaila, “Ablitasko Gaztelua zaharberritzea” izenekoa.

t) 52000 proiektuan dagokion kontusaila, “Fotografi ondarea kontserbatzea eta erakustea” izenekoa.

u) 43200-4811-4551 kontusaila, 60000 proiektua, “Eremu ez euskalduneko ikastolei dirulaguntza berezia” izenekoa.

6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 ekonomi kodekoak, osasun arloko udal langile transferituen lansariak ordaintzeko direnak, Foru Administraziokoak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa Osasun Eskualdetan Banatzeari buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldatak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 52000-1239-4112 kontusaila, 40000 proiektukoa, “Zerbitzuen aitorpen, famili laguntzaren gehikuntza, gradu, antzinatasun, osagarri berri, eszedentziatik itzultze eta beste batzuetarako aurreikuspena” izenekoa.

c) 52000-1309-4112 kontusaila, 40000 proiektukoa, “Zerbitzuen aitorpen, antzinatasunaren gehikuntza, osagarri berri, eta abarretarako aurreikuspena” izenekoa.

d) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoa dutenak, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47 eta 49 gastu-programetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

e) 47005 proiektuan dagokion kontusaila, “NGOIren eta O-NOZen arteko koordinazio soziosanitariorako programa, ekimen, proiektu edo ekintzak” izenekoa.

f) 52300-4809-4122 kontusaila, 47000 proiektua, “Botika prestazioak” izenekoa.

g) 52300-4809-2-4122 kontusaila, 47000 proiektua, “Xurgatzaileak eta beste osasungai batzuk” izenekoa.

h) 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, “Organoen transplantea” izenekoa.

7. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko hurrengo kontusail hau: 62220-4709-4551, 3100 proiektua, “Lurreko telebista digital zerbitzua”.

8. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 71210-2400-7131 kontusaila, 1000 proiektua, “Produkzio integratuaren sustapena” izenekoa.

b) 71210-4700-7191 kontusaila, 10002 proiektua, “Merkataritza-kooperatibentzako laguntza, hondamen-kalteak direla-eta” izenekoa.

c) 71210-4700-3-7161 kontusaila, 10002 proiektua, “Ohikoak ez diren kalteak, aseguratu ezin daitezkeen nekazaritza-egitura eta ondasunetan” izenekoa.

d) 71220-7700-7131 kontusaila, 10002 proiektua, “Nekazaritza-ustiategien eraginkortasunaren hobetzea” izenekoa.

e) 71120-7400-7151 kontusaila, 20002 proiektua, “Esne-behien sektorea berregituratzea. I.T.G. Ganadero, SAren transferentziak” izenekoa.

f) 72220-7700-2-5312 kontusaila, 40002 proiektukoa, “Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Legea)” izenekoa.

g) 722210-7700-7161 kontusaila, 21000 proiektua, “Makinak eta produkzio tresnak kooperatibetarako” izenekoa.

h) 72210-7701-5-7161 kontusaila, 21000 proiektua, “Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak, kooperatibak ez direnentzat” izenekoa.

i) 72210-7701-6-7161 kontusaila, 21000 proiektua, “Dirulaguntza, kooperatiben nekazaritza-produktuak biltegiratu eta eraldatzeko tegiak eraiki, zabaldu edo hobetzeko” izenekoa.

9. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 81130-6015-5351 kontusaila, 10001 proiektua, “Industri azpiegiturako inbertsioak” izenekoa.

b) 81130-7600-5351 kontusaila, 10001 proiektua, "Ekonomi jarduetarako udal-guneak" izenekoa.

c) 81120-7701-3-7242 kontusaila, 30001 proiektua, "Inbertsio eta enpleguarengatiko fondo galduko inbertsioak".

d) Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren "Ekoizpenaren berrantolamendua" 30002 proiektuaren kontusailak.

e) 81010-4701-7232 kontusaila, 30002 proiektua, "Enplegu antena, COMEPOR enpresako langileei beste enplegu batzuk emateko" izenekoa.

f) 81200-7810-3-5424 kontusaila, 40002 proiektua, "Proiektu sektorial eta tematikoentzako kapital transferentziak" izenekoa.

g) 82210-7600-7512 kontusaila, 50001 proiektua, "Toki entitateentzako transferentziak, hitzarmenen bidezkoak" izenekoa.

h) 84100-7810-3221 kontusaila, 81001 proiektua, "Enplegu zentro berezietarako transferentziak eta minusbaliatuentzako transferentziak, inbertsioengatik" izenekoa.

i) 84200-7600-37512 kontusaila, 82001 proiektua, "Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak" izenekoa.

10. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko kontusailok:

a) 91000-2269-4-3111 kontusaila, 00000 proiektua, "Familiaren behatokia" izenekoa.

b) 00000 proiektuan dagokion kontusaila, "Mendebaldeko Saharako erreferendumaren aldeko ekintzetarako laguntzak" izenekoa.

c) 91120-7600-3132 kontusaila, 10001 proiektua, "Plan Gerontologikoaren inbertsioak. Toki entitateentzako transferentziak" izenekoa.

d) 91120-7810-3135 kontusaila, 10001 proiektua, "Minusbaliatuentzako kanpoko zentroetako inbertsioak" izenekoa.

e) 93200-4600-3-3131 kontusaila, 21002 proiektua, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urteko haurrak eskolatzeko".

f) 93100-4810-3132 kontusaila, 22002 proiektua, "Plan Gerontologikoko ekintzak" izenekoa.

g) 93300-4809-3132 kontusaila, 24003 proiektua, "Laguntzak, etxez etxeko laguntza pertsonala emateko" izenekoa.

h) 93300-4809-3134 kontusaila, 24003 proiektukoa, "Bizibiderik gabeko famili nafarrendako laguntzak" izenekoa.

i) 93300-4600-2-3137 kontusaila, 24003 proiektukoa, "Bazterkeriaren aurkako plana" izenekoa.

j) 24003 proiektuan dagokion kontusaila, "Erditze multiplea izan duten familiei laguntzea" izenekoa.

k) 93300-4600-3134 kontusaila, 24004 proiektua, "Oinarrizko gizarte zerbitzuak" izenekoa.

l) 93300-4809-3142 kontusaila, 25001 proiektua, "Pentsio ez-kontributiboak" izenekoa.

m) 25001 proiektuan dagokion kontusaila, "Pentsioen igoera osagarria" izenekoa.

n) 95010-7600-2-4571 kontusaila, 40001 proiektua, "Tafallako belodromoa" izenekoa.

11. P0000-7450-1111 kontusaila, 01001 proiektukoa, "Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak" izenekoa, Legebiltzarreko egoitza berriarentzako behar izan ditzaketen kreditu handiagoen prebisioan.

**5. artikulua.** Kreditu soberakinen norakoa, betegabeko lanpostuak direla eta.

Betegabeko lanpostuak direla eta eman daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantziatzeko erabiltzen ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

## II. TITULUA
## Langileriaren gastuak

### I. KAPITULUA
### Jarduneko langileriaren ordainketak

**6. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak.

2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko langileen lansariak, 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legean ezarritakoak, 100eko 2 gehituko dira –aipatutako 21/1998 Foru Legeko lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa bete ondoren–. Horrek ez du ezertan galaraziko lanpostu bakoitzari atxikitakoek zailtasun tekniko berezi, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasuneko edukiarekin dagokien harremana gordetzea ziurtatzeko beharrezkoak diren lansari-egokipenak egitea, hala badagokio.

**7. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako lan-kontratudunen lansariak.

1. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen lansariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, Foru Lege honen 6. artikuluan finkatutako irizpide berberei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratudunen lansariak, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

**8. artikulua.** Nafarroako Gobernuko kideak eta libreki izendaturiko aldi baterako langileak.

1. 2000ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuko kideen lansariek, Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute 1999an ezarritakoekiko.

2. 2000ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen aldi baterako langile libreki izendatuen lansariek, Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute 1999an ezarritakoekiko.

## II. KAPITULUA
## Klase pasiboak

**9. artikulua.** Xedapen orokorrak.

1. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, eguneratzeko eskubidea duten Nafarroako administrazio publikoetako klase pasiboen pentsioak 100eko 2 gehituko dira.

2. Halaber, aipatu klase pasiboei dagozkien famili laguntza edo seme-alaba elbarrituengatiko ordainketek ere arestian aipatu den gehikuntza izanen dute.

**10. artikulua.** Funtzionarioen pasiboen araubidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateratuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorraren 3. idatz-zatian eta xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraikiz, eskubide pasiboen araubidea martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea baino lehen indarra zuten xedapenei lotuko zaie. Soldata erregulatzailea zehazteko, aintzakotzat hartuko dira funtzionarioek jasotako lansari handienak, aipatu Foru Legearen eta hura betetzeko emandako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera, eta horiei Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan hurrengo urteetarako ezarritako ehunekoak gehituko zaizkie. Artikulu honetan aipatutakoa ez zaie ezarriko ez lan istripuaren ondoriozko ezgaitasunengatiko pentsioei, ez lanbideko eritasunengatiko pentsioei ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen arabera, jubilazio eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan hartuko. Urte horien barnean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den Administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981ko urriaren 29an hartutako erabakiari, eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo Toki Erakundeetako Administrazioaren montepioren bati atxikitako funtzionarioen jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, Foru Lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratutakoak badira, honako hauek zenbatuko dira, pentsioaren zio den egintza gertatzen den eguneko atzeraegineko ondorioz: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, betiere, aipatu aldiak aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikako ehunekoa edo kuota.

Aurreko idatz-zatian aipatu funtzionarioek gauzatutako jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inolaz ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipatu erregimenen ondoriozko pentsiorik gauzatu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu eginen baitira horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barnean dauden funtzionario publikoek 2000. urtean hartutako jubilazio eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontutan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 2000. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko Aurrekontuei buruzko Foru Legeek, hau barne,

finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 2000rako soldata eta garestitze plusaren zenbatekoak lortu ahal izateko, jarraian dagoen taulan agertzen diren zifrei hurrengoak ezarri beharko zaizkie: 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak xedatutakoa eta Foru Lege honetako 9. artikuluan zehazten den ehunekoa.

| Maila | Soldata | Garestitze plusa |
|---|---|---|
| 0 | 1.779.683 | 1.163.406 |
| 1 | 1.492.358 | 1.102.132 |
| 2 | 1.227.686 | 1.045.601 |
| 3 | 1.092.907 | 1.016.856 |
| 4 | 1.038.770 | 1.005.336 |
| 5 | 993.120 | 995.611 |
| 6 | 951.060 | 986.609 |
| 7 | 911.199 | 1.000.704 |
| 8 | 883.414 | 1.031.897 |
| 9 | 843.190 | 1.023.299 |
| 10 | 819.510 | 999.507 |
| 11 | 798.194 | 987.042 |
| 12 | 752.406 | 960.007 |
| 13 | 721.185 | 944.702 |
| 14 | 664.223 | 915.637 |
| 15 | 611.769 | 873.716 |
| 16 | 579.783 | 854.878 |
| 17 | 526.912 | 836.079 |

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatiko jubilaziorik dagoenean, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hil ondorengo alargunentzako edo umezurtzendako pentsioetan ere, funtzionarioak bere lanpostuarengatik jubilatu edo hil aurreko urtean jasotako lansariek osatuko dute alokairu arautzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako lansari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoa izanen da, funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan gehitutakoak erantsiz, 2000koa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketa lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan ezarritako pentsio igoeren ehunekoak erantsirik.

Horretarako, aipatu Foru Legea baino lehenago zeuden lanpostu edo mailetan sartuko dira 1984ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako funtzionarioak, orain betetzen dituzten lanpostuen eta lehenagokoen arteko baliokidetza edo analogiaz.

5. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateratuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden klase pasiboen pentsioentzat ez da aplikagarria izanen aipatu Langileriaren Estatutua; ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legeetan ezarritako ehunekoa bakarrik gehituko zaie.

6. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko jubilazio-pentsioa Nafarroako administrazio publikoetako E mailako funtzionarioentzat finkatuko den oinarrizko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da. Idatz-zati honek xedatutakoa bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera eguneratzeko eskubidea duten pentsioei.

Osasun Laguntza-Erabilera Berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikipenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko jubilazio pentsioaren 100eko 55 “Oinarrizko soldata” kontzeptuari dagokiola eta gainerakoa “Bizitzaren garestitze plusa” kontzeptuari dagokiola.

7. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioa ekitaldi horretarako ezarriko den lanbidearteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da.

Osasun Laguntza-erabilera berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikipenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko alargun-pentsioaren 100eko 55 “Oinarrizko soldata” kontzeptuari dagokiola eta gainerakoa “Bizitzaren garestitze plusa” kontzeptuari dagokiola.

8. Artikulu honetako 7. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako administrazio publikoen klase pasiboen ezein montepioren kargura emandako alargun-pentsioen gutxieneko kopurua, zein bere Erregelamenduaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hamazortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkeraren arabera.

Beraz, gehikuntza honetatik at geratu da aipatu 5/1991 Foru Legeak ezarritako aldaketaren

aurretik aplikatzen zen arautegiaren arabera emandako umezurtz-pentsio oro, onuradunaren ezgaitasuna dela-eta aitorturikoak salbu.

9. Foru Diputazioko funtzionarioen jubilazioei eta pentsioei buruzko Erregelamenduko 8. artikuluko 3. idatz-zatian, eta Udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduko 10. artikuluan aipatzen diren zurztasun-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten zurztasun-pentsioak onartu eginen dira; betiere, hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak bete egin beharko dira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, haren ezkontidea -alargun-pentsioa jasotzen duena-hiltzen den egunean.

10. Nafarroako Foru Komunitateko montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako dirusarrerekin bai alargun-pentsioarekin.

**11. artikulua.** 1931ko martxoaren 10eko Erabakiaren bidez onetsi Jubilazio eta Pentsioei buruzko Erregelamenduan sarturik ez dauden funtzionarioen eskubide pasiboak.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izanen ondoren aipatzen diren funtzionarioentzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatean sartuta daudenentzat, Estatuko Administraziotik eginkizun eta zerbitzuak transferitzeari buruzko Errege Dekretuen ondorioz; betiere, hasieran zeukaten gizarte segurantzako edo aurreikuspen sistemarekin jarraituko dute.

b) Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik egon eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoetan sartutakoentzat.

**12. artikulua.** Ikastetxeetako funtzionarioen eta hezkuntzako ikuskatzaileen borondatezko jubilazioa.

1. Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo beren borondatez jubilatzen badira 60 urtetik gora dutela eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen iragankorraren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betez, Foru Komunitateko Administrazioak borondatezko jubilazio prima bat emanen die; prima hori xedapen iragankor horretan aurreikusitako aparteko haborokinaren osagarri izanen da.

2. Jubilazio prima eskuratzeko, funtzionarioak 1989ko irailaren 1ean jardunean egon beharko zuen, egoera horretan etenik gabe jarraitu eta data horretatik aitzina Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastetxeetako plantiletako lanpostuetan aritu; hezkuntza ikuskatzaileen eta hezkuntza administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioen kasuan, ez da derrigorrezkoa izanen ikastetxeen plantiletako lanpostuei atxikita egotea.

3. Aurreko idatz-zatietan aparteko haborokinari eta jubilazio primari buruz xedatutakoa, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean, edo geroagokoenean, funtzionario bihurtu ziren langileei aplikatuko zaie, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko jubilazioarengatiko sari osagarriaren zenbatekoa, Foru Lege honetako 1. eranskinean funtzionarioaren adinaren, zerbitzu urteen eta sartuta dagoen kidegoaren arabera ezartzen dena izanen da, eta jubilatuaren ordainsariei dagokien aurrekontu-kontusailaren kargura ordainduko da.

## III. KAPITULUA
## Beste zenbait xedapen

**13. artikulua.** Langileen aldibaterako kontratazioa.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, zerbitzuaren beharrak hala eraginda, beharrezkoak diren langileak administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatzeko, foru lege honetan ezarritako aurrekontu-mugen barnean.

**14. artikulua.** Lanpostuak berriz egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantila berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik funtsik gabe gelditutako lanpostuak, betegabeak ez direnak, berriz ere egokitzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, zuzenean eta salbuespen gisa, eginkizunak berriz eman eta maila berean egokitzen diren lekualdaketak eginen ditu.

**15. artikulua.** Foruzain izateko deialdiak.

Foruzaingoaren Antolamendu eta Eginkizunei buruzko Plan Zuzentzailean, Nafarroako Parlamentuak 1994ko ekainaren 28an onetsitakoan, aipatzen diren aurreikuspenekin bat, Nafarroako Gobernuak 2000ko lan eskaintzan, aurrekontu kontsignaziorik gabe, foruzainen 50 lanpostu sartu ditu.

## III. TITULUA
## Finantza eragiketak

### I. KAPITULUA
### Abalak

**16. artikulua.** Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak guztira 2.000 milioi pezeta osatzen duten abalak eman ahal izanen ditu.

Aipatu mugaren barnean eta Industri Politikako eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenerako Bitarteko Neurriei buruzko Arauko 35. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak Nafarroan diharduten Elkarrekiko Bermeen Sozietateekin abalak itundu ahal izanen ditu eta haren eragiketei bigarren abala eman.

### II. KAPITULUA
### Zorpetzea

**17. artikulua.** Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo zor publikoa jaulkitzeko. Haren muga izanen da 2000ko abenduaren 31ko saldo biziduna ezin izanen dela izan 2000ko urtarrilaren 1eko saldoa baino 2.872 milioi pezeta gehiagokoa.

## IV. TITULUA
## Toki entitateak

**18. artikulua.** Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko fondoa.

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa, 2000rako, 25.153.859.000 pezetakoa izanen da.

2. 2000ko ekitaldirako ezarri den partaidetzaren zenbatekoa, honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 16.391.960.000 pezeta.

II. Kapital transferentziak: 5.810.361.000 pezeta.

III. Beste laguntza batzuk:

A) Iruñeko Udalari, “Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria” delakoagatik: 2.072.375.000 pezeta.

B) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 24.166.000 pezeta.

C) Zenbait udalentzako konpentsazioa, biztanle ponderatuak bider aplikaturiko gastua aldagaia dela-eta: 167.577.000 pezeta.

D) Zenbait udali, daukaten egoera ekonomiko-finantzarioa daukatelako: 687.420.000 pezeta.

**19. artikulua.** Transferentzia arrunten fondoa eta “beste laguntza batzuk” izenekoaren C) eta D) idatz-zatiak banatzeko formula.

1. 2000. urteko ekitaldian, ondoko legeotan ezarritakoa izanen da banaketa egiteko formula: abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten partehartze-fondoa 1998ko eta 1999ko aurrekontu ekitaldietarako banatzeko zenbatekoa eta formula ezartzen dituena; eta 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrenkontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian onetsitako aldaketa.

2. Banatzeko formulan erabiliko diren aldagaien balioak ondokoak izanen dira:

| Aldagaia | 2000ko ekitaldia |
|---|---|
| Biztanleria | 2000-1-1eko errolda |
| Biztanleriaren aldaketa | |
| 10 urtetan | 1990-2000ko errolda |
| Entitate kopurua | 1996ko errolda |
| Biztanleria barreiatua | 1996ko errolda |
| Biztanleria ≤ 16 urte | 2000-1-1eko errolda |
| Biztanleria ≥ 65 urte | 2000-1-1eko errolda |
| Langabetu kopurua | 1999. urtea |
| Hiri-lurzoruaren zabalera | |
| garbia | 2000-1-1eko datuak |
| Zerga ahalegina: | 1998. urtea |
| - Dirusarrera kitatuak | |
| - Merkatuko balioa | |
| - Katastroko balioa | |
| Balio katastral komunala | 2000-1-1eko datuak |

3. Kontzejuez denaz bezainbatean, 2000. urterako, 1997an lortu zuten zenbateko osoa izanen dutela agindu zaie.

**20. artikulua.** Kapital Transferentzien Fondoaren banaketa

1. Kapital Transferentzien Fondoaren banaketa 12001 zenbakidun proiektuan, “Kapital Transferentzien Fondoa” izenekoan, agertzen da.

2. 2000ko aurrekontu-ekitaldian sartuko diren obren plana honela eratuko da:

– Plan zuzentzaileei dagokienez, horietan bertan zehaztutakoak, baldin eta horien aurrekontuak eta Foru Lege honetan onetsitako zuzkidura bat badatoz.

– Toki Programazioko Azpiegituraren obrez denaz bezainbatean, lehentasuna izanen dute 1997-1999 Toki Azpiegituren Hirurteko Planean sarturik egon eta, kostua handia dakartenez, faseka egiten direnak, eta Nafarroako Gobernuaren 1997ko uztailaren 4ko erabakiaren bidez onetsitako zuzkiduren herena izanen da gehienezko zenbatekoa; bada salbuespen bat: lehen fasean sartutako azpiegitura bukatzeko, hondar-obraren bolumena ekonomikoki eragin txikikoa dutenak osorik sartuko dira. Orobat, zenbait eskabidetan lehentasuna izanik parte batez bakarrik sartu diren toki entitateen obrak (eskabideak osotasunean kostu handia baitzekarren) aurreko idatzzatiko irizpide berarekin sartuko dira. 1997-1999ko plan osagarrietan sartutako toki entitateek ere tratamendu bera izanen dute.

1997-1999 Toki Azpiegituren Hirurteko Planean finantziatu gabe geratu ziren obrak finantziatzeko izanen da gainerako dirua; lortutako kalifikazioen ordena errespetatuko da, baina kanpoan utziko dira ezinbestean finantziatu zirenak edo ezusteko jazoerengatik finantziatuak.

Orobat, Obren Planean aske dagoen zenbatekoarekin ondokoak finantziatuko dira: ezinbestearen edo ezusteko jazoeren ondoriozko obrak, 100eko 10eko gehikuntzak, ohiz kanpoko araubidea finantziatzeko osatu beharreko fondoa, eta zerga presio errealagatiko gehikuntzak, 1997-1999 Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean agertzen direnak.

– Fondo ekonomikoen banaketa optimizatzearren, beste obrak batzuk sartu ahalko dira partzialki, baldin eta, betiere, teknikoki hurrenez hurreneko faseetan burutzeko modukoak badira.

– Behin-behinekoz sartutako Toki Programazioko obren zenbatekoa 100eko 10 arte handitu ahalko da, behin betikoz sartzen direnean.

3. Aipatutako obrak finantziatzeko egiten diren kapital-transferentzien araubidea honakoa da:

a) Plan zuzentzaileak:

– Goi presioko uraren hornidura: % 90.

– Ibaiak araztu eta saneatzea: % 80.

– Hiri hondakin solidoak:

Jasotzea, % 70.

Tratamendua, % 90.

b) Toki Programazioko Inbertsioak:

– Goi presioko uraren hornidura, plan zuzentzaileetan sartu gabekoa: % 80-100.

– Herrietako hornidurako eta saneamenduko sareak: % 60-80.

– Herriko argiteria: % 60-80.

– Zoladura: % 60-80.

– Elektrifikazioa: % 40-60.

– Udal eraikinak: % 60-80.

– Hilerriak: % 60-80.

– Herriko bideak: % 60-80.

– Herrien garapena: % 40-60.

Nahitaezko zerbitzuetarako diren inbertsioen kostuaren 100eko 100 arte ere eman ahalko da, ohiz kanpoko egintza gisara, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aipatutako kapital transferentzien kontura, baldin eta, toki erakunde interesatuaren egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan izanik, ezin badira finantziatu aurreko lerroaldean orokorki ezarritako gehienezko ekarpen-portzentajearekin. Neurri hauen onura jaso nahi duten toki entitateek izan beharreko baldintzak eta portzentajea erregelamendu bidez ezarriko dira.

4. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko du honako alderdi hauei dagozkien prozedura eta arauak: aurkeztu beharreko agiriak, behin-behinekoz sartzea, behin betiko sartzea, asignazioen portzentajea, obren adjudikazioa, ekarpenak nola eman, ekarpenak aldatzea, egiteko epea eta iraungitzea.

Zuzeneko kudeaketa –nortasun juridiko propioa duen entitate baten bidezkoa– daukaten toki entitateen kasuan, foru lege honetan zehaztutako ekarpenak zuzenean eman ahalko zaizkie entitate horiei, baldin eta, betiere, horiek inbertsioak egiten badituzte eta hala eskatzen badu toki entitateak berak.

5. Kapital Transferentzien Fondoko baliabideak, ekitaldi ekonomikoan erabili gabeak, hurrengo ekitaldian fondo horretara pasatuko dira. Horrela ekarritako kredituak, ekartzea baimentzen den ekitaldian ez badira aplikatzen, hurrengo ekitaldiko gastuen egoeran sartuko dira, ekitaldi hartan aplikatzearren.

Gerakinen kontuetako ekonomiek aurreko ekitaldietan jasotako lanen kosturik handienak finantziatuko dituzte. Hala ere, ekonomia horien zenbateko osoak 150 milioi pezetako kopurua gainditzen badu, ateratzen den soberakinarekin obra berriak finantziatu ahal izanen dira, betiere

lehentasun irizpideei jarraituz eta 97/99 Toki Azpiegituren Hirurteko Planean lorturiko sailkapenen hurrenkera errespetatuz. Fondo horretako kontusailen artean, aurrekontu-ekitaldi honen barnean, programaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-egokitzapenak egin ahal izanen dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 39. artikuluko 3. idazatiak ezarritakoaren arabera.

**21. artikulua.** Europako Batasuneko diruez finantziatzeko inbertsioen Plan Osagarria.

Europako Batasuneko diruez finantziatutako Azpiegituren Inbertsioen Plan Osagarria burutuko da. Hura Toki Administrazioko Departamentuaren eskumenekoa izanen da.

2000. urtean Europako Batasunetik hartzen diren dirusarreren adinako zenbatekoan burutuko da Plana. Foru lege honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera lortutako kalifikazioen ordena errespetatuz ezarriko dira lehentasunak, eta kontuan hartuz 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Plana –apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean arautzen dena– eta hura garatzen duen foru dekretua.

Ekitaldi ekonomiko honetan erabiltzen ez diren Plan Osagarriko baliabideak hurrengo ekitaldikora pasatuko dira.

**22. artikulua.** Ohiko Batasunen inbertsioetarako dirulaguntza eta onurak.

Bardeetako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako dirulaguntzak eta gainerako onurak jaso ahal izanen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

**23. artikulua.** Toki Azpiegiturei buruzko 2000ko Plan Berezia.

Finantziatuko diren inbertsioak ondokoak izanen dira: Goi presioko uraren hornidurari buruzko Plan Zuzentzailea eta Toki Programazioko obrak, 1997-1999ko Plan Berezikoak, abenduaren 30eko 24/1997 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Aipatutako legean ezarritakoaren araberakoak izanen dira, orobat, ondoko hauek: hautapena eta lehentasunak ezartzea, ekarpenen araubidea eta 2000ko Plan Berezia eratzeko, garatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko prozedura.

Toki Programazioko obrez denaz bezainbatean, 1997-1999ko Plan Berezian finantziatu gabe geratu zirenak izanen dira kontuan, lortutako kalifikazioen ordena errespetatuz.

Ekitaldi ekonomiko honetan erabiltzen ez diren Plan Bereziko baliabideak hurrengo ekitaldikora pasatuko dira.

**24. artikulua.** Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 917.392.000 pezetako ekarpena eginen du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorraren barnean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen artean sortzen diren pentsioak finantziatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorraren kudeaketak 1999ko ekitaldian sortutako kostuen banaketan Udal Bakoitzari esleitutako kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 497.362.000 pezeta banatuko ditu Iruña, Tutera eta Tafallako udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 1999ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

**25. artikulua.** Administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

10002 proiektukoak diren “Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 21400-4600-9129 kontusailak eta “Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 21400-7600-9129 kontusailak finantziatuko dituzte Nafarroako Gobernuak eta elkartu egiten diren udalek sinatu beharreko hitzarmenetako aurreikuspenak.

“Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 21400-7600-9129 kontusaila mankomunitateen egoitzak eta beren administrazio-zerbitzuak elkarrekin ematen dituzten entitate asoziatiboen egoitzak eraiki eta hobetzeko erabili ahal izanen da. Lehentasunak 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz ezarriko dira. Kalifikazio haiek Plan hari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta hori garatzen duen Foru Dekretuan aipatzen dira.

## V. TITULUA
## Aurrekontuen kudeaketa

**26. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak.

Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak Mahai edo Lehendakari bakoitzak eskatu ahala libratuko dira, irmoki eta aldizkakotasunez.

**27. artikulua.** Nafarroako Kontseilua.

Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen da Nafarroako Kontseilua, haren independetzia organikoari eta funtzionalari kalterik egin gabe.

Era berean, Nafarroako Ogasuneko Kontuhartzailetza Nagusiari lotuta egonen dira haren jarduketa ekonomikoak eta aurrekontu-jarduketak.

**28. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuaren dotazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoari eginen zaizkion ohiko transferentziak, orokorrean, aldez aurreko hiruhilekoetan eginen dira, behar handiagorik frogatzen ez bada, behintzat.

Unibertsitate hari eginen zaizkion kapital transferentziak bi epetan libratuko dira, aldez aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

**29. artikulua.** Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren aurrekontuaren dotazioak.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari eginen zaizkion ohiko transferentziak aldez aurreko hilabetetan libratuko dira, orohar, behar handiagoak justifikatzen ez badira, behintzat.

Kapital transferentziak libratuko dira Partzuergoaren Lehendakariak eskatzen dituen neurrian, haiek eskatzea eragin duen gastua egin dela frogatuz.

**30. artikulua.** Herrietako kontsultategien dirulaguntzak.

47001 zenbakiko "Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta birmoldatzeko transferentziak" proiektuan dagoen kontusailarekin -herrietako kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko baitaehuneko 100eko dirulaguntza emanen da, dirulaguntza horiek emateko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen arau-oinarrietan ezarriko diren baldintzei jarraituz.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean burutuko du herrietako kontsultategien ekipamendua.

**31. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetako aldaketak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzaileak baimena ematen ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 46. artikuluan aipatzen diren aurrekontu-aldaketak egiteko, erakunde autonomo horren esparruan.

**32. artikulua.** Sindikatuak eta enpresarioen organizazioak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren aurrekontuan Sindikatuentzat horietako bakoitzaren ordezkaritza-mailaren arabera egiten den gastu-kontsignazioa, guztien artean banatuko da, bakoitzak Foru Komunitatearen eremuan duen ordezkapenaren arabera, eta 1999ko abenduaren 31n lorturiko emaitzei jarraikiz.

Halaber, "Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan dauden langile-sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresarioen organizazioei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila horietako bakoitzak aipatu Kontseiluan duen kide-kopuruaren arabera banatuko da aipatu entitateen artean.

Era berean, "Sindikatuen hauteskunde-prozesua jarraitzeko Batzordea osatzen duten sindikatuei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko Batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuen artean banatuko da, bertan duten kide-kopuruaren arabera.

**33. artikulua.** Gastu-hitzarmenak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Industri Politikako eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenerako bitarteko Neurriei buruzko Arauan ezarritakoari jarraikiz, eta baita martxoaren 27ko 79/1 995 Foru Dekretuan ezarritakoari, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak bertan aurreikusitako laguntzak ematen ahal dituzte, horretarako hurrengo aurrekontuen kargura gastu-hitzarmenak eginez, betiere aipatu hitzarmenek Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako ezartzen dituen mugak gainditzen ez badituzte.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lanekoak eta Osasunekoak, dagozkien eskumenen esparruan, beka eta dirulaguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializaziorako, hezkuntza berezirako, Foru Komunitateko elkarrizketarako laguntzaileendako egitaraurako, eta Nafarroarendako interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu-hitzarmenak eginen dituzte, dauden ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta esandako hitzarmenek gainditzen ez badituzte xede horretarako

aurreko ekitaldian aipatzen diren zenbatekoak. Gastu-hitzarmen berbera, muga horiexekin, eskuratzen ahal du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, enpresen lehiakortasunerako laguntzak –maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak–, eskualdez gaindiko elkarlan proiektuetarako dirulaguntzak emateko eta Estatuak eskualdatutako “Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak” programetako laguntzak –Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko abuztuaren 3ko Aginduan arautuak– emateko, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, eskola garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzeko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzako alorrean hezitzeko jardueretarako laguntzak eta subsidioak eman ahal izanen ditu, 120/1999 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraiki –dekretu horren bidez arautzen baita oinarrizko errenta–, horretarako etorkizuneko ekitaldien kargura hitzarmenak eginez, aurreko ekitaldian helburu horrekin kontsignaturiko kopuruak gainditzen ez dituztenean, betiere.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak hurrengo ekitaldietako aurrekontuen gain gastu-hitzarmenak egitea izanen du, lurzati kontzentraziorako oinarri eta proiektuei, ureztalurretako jardunei eta larreak hobetzeko inbertsioei dagozkien urteanitzetako gastuak finantza ditzan, betiere Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzeko ezartzen dituen mugak gainditu gabe.

4. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahal du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu-hitzarmenetarako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago, Europako Batasunak elkarfinantziatzen dituen eta hiru urtetik goitiko plangintza eduki behar duten plan, egitarau eta ekimenei aurre egiteko.

5. Nekazaritza finantzaketari buruz lege mailako xedapenen testu bateratuaren, otsailaren 16ko 54/1998 Foru Dekretu Legegilearen bidez onetsitakoaren, II. Tituluaren esparruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak nekazaritza egituren eraginkortasuna hobetzeko aurreikusitako laguntzak eman ahal izanen ditu, horretarako gastu hitzarmenak eginez, behar den ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, betiere hitzarmen horiek ez badituzte Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzeko ezarriko dituen mugak gainditzen.

6. Nafarroako Gobernuak luzatzen ahalko ditu, gehienez ere zazpi urte arte, industri politikako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako bitarteko neurriei buruzko arauko 34. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran eta 6. idatz-zatian aurreikusitako epeak. Baita ere, dirulaguntzak emeki-emeki ordaindu ahal izanen ditu, 10.000 milioi pezetatik goitiko inbertsio-proiektuetan eginiko inbertsioaren gauzatzearen arabera, proiektu horiek 2000an eta hurrengo urteetan laguntza horiek hartzeko aurkezten baldin badira.

7. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo gastu-hitzarmenak egiten ahalko ditu, abenduaren 26ko 8/1998 Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duen epea gaindituta, epea zazpi urtetaraino luzatuz, errepideak zaintzeko kontratuetan.

8. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-hitzarmenak egin ahal izanen ditu, garapenerako lankidetza-proiektuak finantziatzeko, proiektuok martxoaren 9ko 95/92 Foru Dekretuan xedatuaren arabera diruz lagunduak badira, eta proiektuen bideragarritasunak ezinbesteko badu ekitaldiaz gaindiko eta, gehienez ere, hiru urterako plangintza.

9. Nafarroako Gobernuak behar den ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-hitzarmenak egin ahal izanen ditu, garraio-zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

10. Nafarroako Gobernuak datozen ekitaldiak ere hartzen dituzten gastuak ituntzen ahalko ditu, abenduaren 26ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeak onartzen duenaz gainetik, Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea burutzeko sinatu zuten lankidetza hitzarmena aplikatzearen ondorioz eginen diren kontratuen finantzaketan parte hartzeko.

**34. artikulua.** Bideragarritasun ikerketetarako dirulaguntzak.

Bideragarritasun ikerketak egiteko dirulaguntzak, krisian diren enpresak onbideratu eta berrabiatzeko laguntzen ematea arautzen duen martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legean aurreikusitakoak direnak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak emanen ditu, eta ordainketa ikerketa egin duenari zuzenean egiten ahal zaio, betiere, enpresa onuradunaren oniritziarekin.

**35. artikulua.** Europako Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, ekitaldian zehar Europako Batasunak kofinantzia-

tutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren Jarraipen Batzordeek edo Europako Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastu-egoeretan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantziatu beharko dira.

**36. artikulua.** Itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 49. artikuluaren bigarren eta hirugarren idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru-kopurua hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 2000. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako fondo publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari irakasle/unitate itundu erlazio egokiak ezartzeko, indarra duen ikasketa plana itunaren barnean dagoen maila bakoitzean emateko. Astean 25 eskola ordu ematen dituzten irakasleen lanaldien arabera kalkulatuko dira. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ezin ditu bere gain hartu lansarien gehikuntzak, orduen gutxitzeak edo zortzigarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoetan ezarritakoa gainditzearen ondorioa lekarkeen beste edozein gorabehera (zuzendaritza karguen osagarriak edo antzinatasuna, kasu).

Langile irakasleen lansariei buruzko aurreikuspenek 2000ko urtarrilaren 1etik hasita hartuko dute indarra, Irakaskuntza Pribatuaren Talde Hitzarmenak onesten diren datak horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espreski horrela eskatzen dutenean, sindikatuak entzun ondoren, kasuan kasuko Hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketok 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute indarra.

"Beste gastu batzueetarako" eta, hala balitz, langile osagarrieetarako moduluko osagaiek 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak.

Langile irakasleen lansarieetarako ezarri diru-kopuruak, gizarte kargak barne, Administrazioak zuzenean ordainduko ditu, ordainketa delegatuaren bidez. Ikastetxeko irakasle eta titularraren arteko lan harremana galarazi gabe.

"Beste gastu batzueetarako" diru-kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie eta horiek ikasturtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

"Gastu aldakorrak" osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Goi mailako heziketa zikloak, eta baita gizarte bermeko programak ere, lanbide heziketako ikastetxe itunduetan lehenago ezartzeak izaera esperimentala duenez, horien osaera eta finantziatzeko modua erregelamenduz arautu bitartean, hezkuntza administrazioak behin-behinekoz finkatuko ditu horiek finantziatzeko kopuruak. Era berean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2000/2001 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta zortzigarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa zikloetako modulu ekonomikoak.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, goi mailako edo maila ertaineko Heziketa zikloak eta Gizarte Bermeko Programak ezarri dituzten ikastetxeei Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 3e) hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientabideko zerbitzu espezializatuetarako finantzaketa emanen zaie. Finantzaketa hori honako proportzio honetan emanen da: eginkizun horietarako profesionalaren lanaldi oso bat aipatu hezkuntza mailetako itundutako 25 unitate bakoitzeko. Beraz, itunduriko zentroek eskubidea izanen dute aipaturiko profesionalaren lanaldiaren finantzaketa eskuratzeko, itunduta dituzten aipatu mailetako unitateen kopuruaren arabera.

4. Ikasleengandik hartu beharreko kopurua, bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloko derrigorrezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion fondo publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarriaren kontzeptupekoa, bai esklusiboki arauturiko irakaskuntza kontzeptupekoa ere, 3814 pezeta ikasle/hilabetekoa da –hamar hilabetetan zehar–, 2000ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte horretako irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz zentroek lorturiko finantzaketa modulu ekonomikoko "bestelako gastuak" atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, Administrazioak ez du inolako kopururik ordainduko kontzeptu horretarako.

5. Goi mailako heziketa zikloetako hitzarmen berezia partziala izanen da; beraz, derrigorrezkoa

ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion fondo publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, esklusiboki arauturiko irakaskuntza kontzeptupean, hau izanen da, 6.226 pezeta ikasle eta hileko, 10 hilabetez, 2000. urteko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2000. urteko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, lan zentroetako Lanbide Heziketa baizik ez duen ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleak salbu. Hauek 5.399 pezeta ikasle eta hileko ordainduko dute, lan zentroetako Lanbide Heziketak irauten dituen hiru hiletan.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz zentroek lorturiko finantzaketa modulu ekonomikoko "bestelako gastuak" atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, Administrazioak ez du inolako kopururik ordainduko kontzeptu horretarako.

6. Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten edo gutxiengo etniko zein kulturalki kaltetutako partaideak diren ikasleak dituzten itunduriko ikastetxeek, gainera, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: laguntza-irakasleak, logopedia-zerbitzuak eta zaindariak eta pertsonal osagarria.

Baliabide horiek esleituko dira Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsitako deialdi publikoa egin ondoren, beharrezkoak diren txosten teknikoei jarraituz.

**37. artikulua.** Oteiza Fundazioaren Museo Etxea.

"Oteiza Fundazioaren Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak" izeneko kontusailari, aipatu Fundazioarekin zerikusirik duen edozein gastu aplikatzen ahal zaio.

**38. artikulua.** Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF).

Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezko diren aurrekontu-kontusailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere.

Finantzaketa, betiere, hurrengo kontusailaren kargura eginen da: 11610-6092-1341; proiektua, 16003; izena, "Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF)".

**39. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritzaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak, arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahalko ditu eta Ekonomi zuzendari nagusiaren aurreko baimena beharko du milioi bat pezeta baino gehiago direnentzako.

**40. artikulua.** Ikerketa-proiektuak

Osasun Departamentuak sustaturiko Osasun Zientzien arloko ikerketa-proiektuek horren inbertsio berekitzat joko dira, eta ez zaie aplikatuko dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen artetik hautatuak izanen dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

**41. artikulua.** Zerbitzuen funtzionamendu normalerako garrantzi txikikoak diren gastuak.

Foru Komunitateko Administrazioko zuzendari nagusiek, idazkari teknikoek eta zerbitzu-zuzendariek, kasuan kasuko administrazio-unitatearen funtzionamendurako beharrezko gertatzen diren gastuak baimendu ahal izanen dituzte, betiere, aurrekontuetan kontsignazioa izanik, horien zenbatekoa ez bada 500.000 pezeta baino altuagoa –zuzendari nagusi eta idazkari teknikoen kasuan–, eta 250.000 pezeta baino altuagoa -zerbitzu-zuzendarien kasuan.

**42. artikulua.** Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideako garrantzi txikiko gastuak

Osasun etxeetako zuzendariek hainbesteko kopuru bat edukiko dute, hilean, beren osasun etxeetako gastu ustekabeko, premiazko edo zehatzei aurre egin ahal izateko, Lehen mailako Osasun Laguntzako zuzendariak ezarriko du hainbesteko horrek zenbat jotzen duen.

**43. artikulua.** Hainbat azpiegitura produktibo jakinen finantziazioa

Azpiegitura produktiboen izaera dutela aintzat hartuz, Nafarroako Gobernuak finantza-araubideak ezartzen ahalko ditu, bai "Nafarroako edukiera handiko bideen Plana"rekin zerikusirik duten kontratuak, hitzarmenak edo enkomiendak garatzeko, baita "Nafarroako Ubidea burutzeko Hitzarmena" garatzeko ere. Erregimen hauen ezaugarria da

proiektuak burutzeko egiten diren ekarpen ekonomikoak ez direla zertan bat etorri dagozkion inbertsioak gauzatzen diren denbora-erritmoarekin.

## VI. TITULUA
## Kontratazioa

**44. artikulua.** Kontratazioaren arloko eskurantzak

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko Buruari ahalmena ematen zaio 2.000.000 pezeta baino aurrekontu altuagoa ez duten hornidura-kontratuak sinatzeko, edo 3.000.000 pezeta baino aurrekontu altuagoa ez dutenak, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 18.2.c) artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Kontratazioa beste departamentu edo erakunde autonomo batzuetara eskualdatua izan duten hornidurak salbuetsita geratzen dira.

Kontratazio eta Aseguruen Ataleko titularra ez baldin badago, gaixorik badago edo bere postua hutsik badago, eskumena Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendariak erabiliko du.

Kontratazio eta Aseguruen atalburuak bulegoa gaiez hornitzeko ahalmena eskuordetu ahalko du, ahalmena horretarako izendatzen den unitate buruari emanez.

2. Aurreko idazatian aipaturiko kontratu-ahalmenak esleituko dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 12.1.a) artikuluak Kontseilariei ematen dien eskumen orokorraren kalterik gabe. Kontseilariek edozein unetan kasuan kasuko kontratua beraiek sinatzea eskatu ahal izanen dute.

3. Garraio zerbitzuak kontratatzeko eta garraio-jarduerak xede dituzten dirulaguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

**45. artikulua.** Zenbait Erakunde Autonomoetako hornidura kontratuak.

1) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2) Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei eskaintzak eskatuz bi hilabetetan behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

3) Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, jakinaren gainean egon dadin, arestian aipaturiko idatz-zatiak araupetzeko prozedura berezia.

## Xedapen gehigarriak

**Lehena.-** 2000. urteko ekitaldirako, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari dagozkion kontusailetan, milioi bat pezeta jotzen duen kontusail bat sortuko da, handiagotu ahalko dena, finantziatu ahal izateko, hala badagokio, 35 orduko lanaldia ezarri ahal izateko laguntza-neurri publikoei eta lan denboraren murrizketa eta berrantolaketari buruzko martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeko zenbait zati, Nafarroako Foru Komunitateko eta bere erakunde autonomoetako Administrazioarentzat eragin ekonomikoa izan dezaketen zatiak, hain zuzen ere; hori guztia Nafarroako Gobernuak, bere zerbitzupeko langileen lan baldintzei dagokienez, Negoziazio Mahai Nagusiarekin lortzen ahal dituen Akordioak aintzat hartuz.

Halaber, aipatu Departamentu eta Zuzendaritza Nagusian, ekitaldi honetarako, 1.910.771.000 pezeta jotzen duen kontusail bat sortuko da, Foru Lege honek ezartzen duen ordainsarien gehiketa finantziatu ahal izateko; betiere, Nafarroako Gobernuak, bere zerbitzupeko langileen lan baldintzei dagokienez, Negoziazio Mahai Nagusiarekin lortzen ahal dituen Akordioek esaten dutenarekin bat etorriz.

**Bigarrena.-** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Administrazioko Departamentuak txostena eman ondotik, Udal eta Kontzejuei ondokoak eman ahal izan diezazkien:

a) Tributuetan parte hartzeko fondoan ohiko transferentziak egiteari dagozkion kontu aurrerakinak, hiruhileko baten zenbatekoaren kontura, ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoan itzuli beharrekoak.

Toki entitatearen aurrezki garbiaren, defizitaren eta zor mailaren araberako egoera finantz-ekonomikoa dela eta, ohiz kanpoko neurriak komenigarritzat joko balira, konturako aurrerakina, gehienez ere, bi hilabeteren zenbatekoan ematea egonen litzateke.

b) Banaketa kontuan jasota egon eta epemuga iragan duten zorren ordainketa geroratzea.

Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan atezu larria gertatuz gero emanen dira; betiere, entitate eskatzaileak katastro berriak aplikaturik edo landa eta hiri katastroaren aberastasuna gaurkotzeari buruzko Hitzarmenak sinatuta edukiz gero.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariak, entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioa nolakoa den ikusita erabakiko du zein korritu tasa aplikatu.

**Hirugarrena.-** Ekonomi eta Ogasun kontseilariari ematen zaio Nafarroako Komunitateko Foru Administrazioa eta horren erakunde autonomoen ondarezko erantzukikizunari buruzko prozedurak ebazteko eskumena, ondare zerbitzuak espedienteak instruitu eta gero.

Hala ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ondarezko erantzukizunagatiko prozeduretan, eta zerbitzu horretan lan egiten duten osasun-langileen erantzukizun profesionalarengatiko prozeduretan, eskumena aipatutako erakunde autonomoko zuzendari kudeatzaileari dagokio

**Laugarrena.-** Hauek dira 2000ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Etxeko isurkinak: 27,2 pezeta/metro kubikoko.

b) Etxekoak ez diren isurkinak: etxeko isurkinen tarifaren gainean 100eko 25 gehiago; eta, behar balitz, karga kutsatzailearen indizea gehitu eginen da.

Arazketarako instalazioak elkar finantziatzen direnean, Toki Administrazio Departamentuak koefiziente zuzentzaile bat jarri ahal izanen du.

**Bosgarrena.-** Abenduaren 31ko Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legeko 78. artikuluko 4 idatz-zatia aldatuko da, eta honela gelditukо:

“4. Foru Lege honek ezartzen dituen legehausteak honela preskribituko dira: lege-hauste arinak, sei hilabeteko epean; larriak, hamabi hilabeteko epean, eta oso larriak, bi urteko epean.

**Seigarrena.-** Hona hemen zein izanen den 2000. urtean etxebizitza alorreko jarduketetan aplikagarria izanen den modulu ponderatua:

– 01 eremu geografikoari atxikiriko udalentzat: 108.800 pezeta/m$^2$ erabilgarri.

– 02 eremu geografikoari atxikiriko udalentzat: 99.211 pezeta/m$^2$ erabilgarri.

Ponderatu gabeko moduluak hauek izanen dira:

– 01 eremu geografikoarentzat: 104.115 pezeta/m$^2$ erabilgarri.

– 02 eremu geografikoarentzat: 94.939 pezeta/m$^2$ erabilgarri

Salneurri tasatuko etxebizitzetako metro karratu erabilgarriaren gehienezko salmente-prezioa 150.600 pezeta izanen da 01 eremu geografikoko udaletan, eta 137.000 pezeta 02 eremu geografikokoetan.

**Zazpigarrena.-** Dirulaguntzen araubide berezia izanen dute benetan funtzionamenduan diren eremu ez euskalduneko ikastolen ikasgelek, nahiz eta baimenik ez izan edo gela bakoitzeko ezarritako ikasle kopururik ez bete.

Dirulaguntza horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hizkuntza Politikarako Programan helburu horrekin aurreikutitako kontusailaren kargura abonatuko. Dirulaguntza horien zenbatekoa. 36. artikuluan eta foru lege honen zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa izanen da.

**Zortzigarrena.-** Hezkuntza maila nahiz modalitate ezberdinetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak, II eranskinean ematen dira, kontzeptu bakoitza moduluaren ehuneko zenbat den adierazita. Zenbateko horiek honela banakatuta daude: “Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne”, eta itundutako unitate bakoitzeko irakasle titular eta atxikitutakoen arteko proportzioa, “Gastu aldakorrak” eta “Bestelako gastuak”.

**Bederatzigarrena.-** Maisutza Diplomaturako ikasketetako praktikak irakasten diren ikastetxeetako maisu-maistrek arauz zehaztuko diren kalte-ordainak jasoko dituzte.

**Hamargarrena.-** Udaleko osasun langile titularrak, foru lege honek indarra hartzen duenean lanpostuaren jabe badira, aukeran izanen dute Foru Komunitateko funtzionario izatera pasatzea, toki osasunaren zerbitzura. Horretarako, hori adierazten duen idazkia aurkeztu beharko dute Foru Komunitateko Erregistro Orokorrean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, hortik kontatzen hasita, 30 eguneko epean.

**Hamaikagarrena.-** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen estamentu eta espezialitateei buruzko eranskina zabaldu egin da. Ondotik aipatzen ditugun izendapenak erantsiko dira, dagokien kodeekin:

A) OSASUN ESTAMENTUAK

A.2. Bestelako osasun fakultatiboak.

A.2.2. Farmazia.

A.2.2.5. Osasun Publikoaren ikuskatzailea.

A.2.6. Medikuntza.

A.2.6.19. Osasun Publikoaren ikuskatzailea.

**Hamabigarrena.-** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Iruñeko udalerriko Osasun Eskualde Oinarrizkoen mugak eguneratzeko, hain zuzen ere haietan izandako banaketa administratibo berrietara egokitzearren; betiere, Nafarroako Osasun Eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea errespetatu beharko ditu.

**Hamahirugarrena.-** Nafarroako Gobernuaren zerbitzupeko telekomunikazio sistemen elkar egokitzea eta integrazioa bermatzeko asmoz, sistemen horniduraren eta telekomunikazio zerbitzuen kontratazioek eta frekuentzien eskariek hauxe beharko dute, betiere: aurretik emandako bideragarritasun txosten aldekoa, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak emandakoa.

**Hamalaugarrena.-** Otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuz onetsi zen Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina aldatu egin da. Hona:

1. Hamalaugarren artikuluko bigarren lerroaldeak ez du ondoriorik izanen 2000ko aurrekontua betetzeko.

2. 2000. urterako 21. artikulua aldatu da. Honela geratuko da idatzita:

“16. artikuluko a) letran aipatzen diren laguntzak gauzatzeko, aseguruaren kostua ordaintzeko diru-laguntza emanen da, Estatuko Nekazaritza-Aseguruetarako Entitateak xede bererako emandakoa kontuan hartuz; dirulaguntza bien batuketa ezin izanen da aseguruaren kostuaren 100eko 80tik gorakoa izan.

**Hamabosgarrena.-** FEOGAko Garantia ataleko kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez, Europako Kontseiluaren 729/70 zenbakiko Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europako Batzordearen 1995eko uztailaren 7ko 1663/95 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko ditu, FEOGAko aipaturiko Garantia ataletik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatzeko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Organismo Ordaintailearen funtzioak betetzen laguntzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuak eraturiko sozietate publikoen esku utzi ahal izanen ditu eginbehar horiek, haiek gauza ditzaten.

**Hamaseigarrena.-** Nafarroako Ogasunari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeko 19. artikulua aldatu da; izan ere, 4. idatz-zatia erantsi zaio. Honela dio:

“4. Baldin eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak sustaturiko ezarpen bereziak jartzeji industrialdeetako lurzatiak edo zoru industriala besterentzen bada, horrek berekin ekarriko du alienagarritasun deklarazioa. Aipatu Departamentuak zuzenean edo Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egin ahako du deklarazio hori, baldin eta besterentzearen balioak ez baditu 100 milioi pezetako kopurua gainditzen; bestela, kopuru hori gainditzen badu, Nafarroako Gobernuak eginen du”.

**Hamazazpigarrena.-** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Arauan industri politikari, inbertsioa sustatzeari eta enpleguari buruz dauden laguntza-araubideak Europako Batasunaren arauetara egokitzeko; horretarako, beharrezko irizten dituen xedapenak emanen ditu.

**Hemezortzigarrena.-** Ahalmena ematen zaio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari behar dituen lankidetza hitzarmenak egiteko “Navarra de Suelo Industrial S.A.” (NASUINSA) eta “Sociedad Estatal para la Promoción y Equipamiento de Suelo” (SEPES) sozietateekin. Hain zuzen ere, hitzarmen horien helburua industri azpiegituren eskasiak betetzea eta zoru industriala sustatu eta saltzea da, betiere 2000. urterako Aurrekontu Orokorretan horretarako jarri diren kontusailen kargura.

**Hemeretzigarrena.-** Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Nafarroako Gizarte Ongizate Departamentuak ordaindutako aldizkako prestazioen eta pentsioen kontzeptuan jaso behar ez baino jaso diren zenbatekoen itzulketa zatituko du, erakunde autonomo horrek eskatuta; horregatik ez korriturik ez bermerik ez du eskatuko.

**Hogeigarrena.-** Transferentzien Batzarrean Nafarroako Gobernuak duen ordezkaritzan tokia izanen dituzte propio eskatu duten edo eskatuko duten Parlamentuko talde guztiek. Nafarroako Gobernuaren ordezkaritzak bere adostasuna emateko Estatuko zerbitzuen transferentzia bati, betiere beharrezkoa izanen da Parlamentuko taldeetako ordezkari gehienen aldeko botoa; ondorio horietarako, ordezkari horietako bakoitzak bere taldean zenbat parlamentario dauden, horren araberako boto kopurua izanen du.

**Hogeita batgarrena.-** Nafarroako Gobernuak era nabarmenean handituko du, 2000-2001 ikasturterako, toki entitateekin hitzarmenak eginez, 0 eta 3 urte bitarteko haurrez arduratzeko lanpostuen eskaintza publikoa; helburua da legegintzaldiaren bukaeran bete ahal izatea LOGSEk gai horretan ezarritako egitekoak. Zerbitzu honen eskari potentziala aztertuko da lehenik; zehazki aztertu ere.

**Hogeita bigarrena.-** Nafarroako Gobernuak daukan lurzoru publikoa handitzeko Plan bat eginen du Nafarroako Gobernuak, hamar hilabeteko epean; hala, Nafarroako Foru Komunitateak arlo honetan egun dituen eta etorkizunean izanen dituen beharrei erantzun egin ahalko zaie. Orobat, zenbait neurri proposatuko dira etxebizitza mota guztiek izan dezaten hobekuntza bioklimatikoen onura.

**Hogeita hirugarrena.-** Nafarroako Gobernuak sakonki aldatuko du ikasteko beken deialdia –bereziki, unibertsitateko beken inguruko xehetasun orotan–, gero 2000-2001 ikasturtean aplikatzearren; handitu egin nahi dira bai onuradunek jasoko dituzten zenbatekoak bai onuradunen kopurua bera, eskatzen diren errenta-tarteak egokituz Nafarroako Foru Komunitatearen egungo gizarte-egoerari; era berean, kontrol zorrotzagoa eginen da, baldintzak zehatz-mehatz betetzen dituzten familiek jaso ditzaten bekak.

Ikasteko beken deialdi orokorra aldatzerakoan, gainera, testu liburuak eta ezinbesteko eskolamateriala erosteko laguntzak sartuko dira, errentatarte batzuentzat, bereziki horiek erosteko zailtasun ekonomikoak dituzten famili guztien mesedetan.

**Hogeita laugarrena.-** Nafarroako Unibertsitate Publikoa finanziatzeko hitzarmen bat aurkeztuko du Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko epean. Hitzarmen horrek indartu artu bitartean, aldatu eginen da ondorengo kontusail hauen kode ekonomikoa: 41120-6020-4241, 10000 proiektukoa, “Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea” izenekoa; eta 40300-6020-4224, 40000 proiektukoa, “Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteanitzetako plana” izenekoa; hala, bada, ordura arte 7455 izanen da kodea.

**Hogeita bosgarrena.-** Comepor enpresarentzat ezarritako enplegu antenaren berri emanen dio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, 2000. urteko lehen hiruhilekoan, Nafarroako Parlamentuko Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo batzordeari, lan bilera batean; alegia, “Comercial Europea de Porcelanas, S.A.L.” enpresako langileei beste enplegu batzuk emateko enplegu antenaren edukiaren eta ezaugarrien berri emanen dio.

**Hogeita seigarrena.-** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiko c) letra aldatu egin da; aurrerantzean hau izanen da horren testua:

“c) Goi-mailako tituludun bat, Nafarroako Gobernuak izendatua:

– Lanbide elkargo eskudunak proposaturik, baldin eta hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian dauden ondasunak desjabetzen badira.

– Nafarroako Nekazaritza Ganbara Ofizialak proposaturik, baldin eta lurzoru urbanizaezinean dauden ondasunak desjabetzen badira.”

### Azken xedapena

Foru Lege honek 2000ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA

2000.- Bigarren Iraskaskuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Irakaskuntzako Katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu Katedradun izaera dutenak

| ZERBITZU URTEAK | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 EDO GEHI. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA 64 URTE | 1.134.379 | 1.146.914 | 1.146.914 | 1.146.914 | 1.156.316 | 1.156.316 | 1.156.316 | 1.167.283 |
| ADINA 63 URTE | 1.168.850 | 1.168.850 | 1.168.850 | 1.179.816 | 1.179.816 | 1.179.816 | 1.190.784 | 1.231.450 |
| ADINA 62 URTE | 1.190.784 | 1.190.784 | 1.203.321 | 1.203.321 | 1.247.191 | 1.330.233 | 1.428.942 | 1.544.886 |
| ADINA 61 URTE | 1.214.288 | 1.223.688 | 1.278.525 | 1.367.835 | 1.472.813 | 1.596.593 | 1.739.172 | 1.895.855 |
| ADINA 60 URTE | 1.273.827 | 1.363.135 | 1.466.546 | 1.588.757 | 1.731.340 | 1.898.989 | 2.085.440 | 2.085.440 |

2000.- Bigarren Irakaskuntzako Irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako Irakasleen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen Kidegoko Funtzionarioak.

| ZERBITZU URTEAK | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 EDO GEHI. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA 64 URTE | 1.169.017 | 1.181.934 | 1.181.934 | 1.181.934 | 1.191.622 | 1.191.622 | 1.191.622 | 1.202.926 |
| ADINA 63 URTE | 1.204.540 | 1.204.540 | 1.204.540 | 1.215.842 | 1.215.842 | 1.215.842 | 1.227.146 | 1.227.146 |
| ADINA 62 URTE | 1.227.146 | 1.227.146 | 1.240.062 | 1.240.062 | 1.240.062 | 1.252.978 | 1.299.804 | 1.390.226 |
| ADINA 61 URTE | 1.251.364 | 1.264.282 | 1.264.282 | 1.264.282 | 1.335.326 | 1.430.593 | 1.542.005 | 1.672.792 |
| ADINA 60 URTE | 1.264.282 | 1.264.282 | 1.330.484 | 1.424.134 | 1.535.545 | 1.664.720 | 1.816.497 | 1.995.725 |

2000.- Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak

| ZERBITZU URTEAK | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 EDO GEHI. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA 64 URTE | 958.573 | 966.967 | 966.967 | 966.967 | 973.965 | 973.965 | 973.965 | 982.361 |
| ADINA 63 URTE | 983.762 | 983.762 | 983.762 | 990.759 | 990.759 | 990.759 | 1.000.553 | 1.000.553 |
| ADINA 62 URTE | 1.000.553 | 1.000.553 | 1.008.950 | 1.008.950 | 1.008.950 | 1.062.126 | 1.126.498 | 1.204.862 |
| ADINA 61 URTE | 1.017.346 | 1.025.742 | 1.025.742 | 1.085.915 | 1.157.284 | 1.239.847 | 1.336.404 | 1.449.754 |
| ADINA 60 URTE | 1.025.742 | 1.083.118 | 1.153.087 | 1.234.249 | 1.330.806 | 1.442.755 | 1.574.299 | 1.729.628 |

2000.- Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak

| ZERBITZU URTEAK | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 EDO GEHI. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA 64 URTE | 975.042 | 982.576 | 982.576 | 982.576 | 991.620 | 991.620 | 991.620 | 1.000.661 |
| ADINA 63 URTE | 1.059.435 | 1.059.435 | 1.059.435 | 1.066.970 | 1.066.970 | 1.066.970 | 1.077.519 | 1.077.519 |
| ADINA 62 URTE | 1.077.519 | 1.077.519 | 1.086.562 | 1.086.562 | 1.086.562 | 1.097.111 | 1.137.800 | 1.207.123 |
| ADINA 61 URTE | 1.095.603 | 1.104.645 | 1.104.645 | 1.104.645 | 1.163.419 | 1.238.771 | 1.326.176 | 1.430.161 |
| ADINA 60 URTE | 1.104.645 | 1.104.645 | 1.160.406 | 1.235.756 | 1.321.657 | 1.424.134 | 1.543.188 | 1.683.342 |

## II. ERANSKINA

| HEZKUNTZA MAILA | IRAKASLEEN RATIOA TITULARRA | IRAKASLEEN RATIOA AGREGATUA | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAKORRAK | MODULUA % | BESTELAKO GASTUAK | MODULUA % | MODULUA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2. HAUR ZIKLOA | 1,12 | - | 4.758.970 | 75,06 | 665.817 | 10,50 | 915.474 | 14,44 | 6.340.261 |
| LEHEN HEZKUNTZA | 1,24 | - | 5.268.859 | 73,82 | 893.362 | 12,52 | 975.261 | 13,66 | 7.137.482 |
| D.B.H., LEHEN ZIKLOA | 1,52 | - | 6.458.602 | 74,97 | 985.338 | 11,44 | 1.170.938 | 13,59 | 8.614.878 |
| D.B.H., BIGARREN ZIKLOA | 1,59 | - | 7.716.860 | 76,48 | 1.049.083 | 10,40 | 1.324.260 | 13,12 | 10.090.203 |
| D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA | 0,68 | 0,6 | 6.212.315 | 73,26 | 943.274 | 11,12 | 1.324.260 | 15,62 | 8.479.849 |
| D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATE | 0,88 | 0,6 | 6.858.688 | 74,68 | 1.001.305 | 10,90 | 1.324.260 | 14,42 | 9.184.253 |
| BATXILLERGOA/ | 1,52 | - | 7.377.124 | 75,98 | 1.007.514 | 10,38 | 1.324.260 | 13,64 | 9.708.898 |
| LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA | 1,44 | - | 6.988.854 | 69,73 | 1.063.390 | 10,61 | 1.970.931 | 19,66 | 10.023.175 |

| HEZKUNTZA MAILA | IRAKASLEEN RATIOA TITULARRA | IRAKASLEEN RATIOA AGREGATUA | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAGARRIAK | MODULUA % | BESTELAKO GASTUAK | MODULUA %O | LANGILE OSAG. | MODULUA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HEZKUNTZA BEREZIA PSIKIKOAK | 1 | - | 4.249.080 | 45,22 | 537.735 | 5,72 | 975.261 | 10,38 | 3.633.886 | 9.395.962 |
| HEZKUNTZA BEREZIA AUTISTAK | 1 | - | 4.249.080 | 49,15 | 537.735 | 6,22 | 975.261 | 11,28 | 2.882.482 | 8.644.558 |
| LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK | 1 | 1 | 8.561.950 | 52,37 | 1.160.801 | 7,10 | 1.324.260 | 8,10 | 5.301.292 | 16.348.303 |
| BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK | 0,64 | 0,36 | 4.272.044 | 48,99 | 591.223 | 6,78 | 975.261 | 11,18 | 2.882.482 | 8.721.010 |

# ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

| HEZIKETA ZIKLOAK | IKAST. | IRAKASLEEN RATIOA | | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAGARRIAK | MODULUA % | BESTELAKO GASTUAK | MODULUA % | MODULUA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | TITULARRA | AGREGATUA | | | | | | | |
| 1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA | 1. | 0,52 | 0,92 | 6.491.593 | 69,16 | 1.010.414 | 10,77 | 1.884.092 | 20,07 | 9.386.099 |
| | 2. | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |
| 1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zatikako eskaintza | 1. | 0,16 | 0,52 | 3.019.233 | 65,29 | 474.525 | 10,26 | 1.130.455 | 24,45 | 4.624.213 |
| | 2. | 0,6 | 0,16 | 3.602.082 | 68,88 | 549.707 | 10,51 | 1.077.550 | 20,61 | 5.229.339 |
| 2) E.H.Z., ERIZAINTZA LAGUNTZAILEEN ARRETAK | 1. | 0,4 | 1,2 | 7.116.791 | 71,58 | 1.103.195 | 11,1 | 1.722.135 | 17,32 | 9.942.121 |
| | 2. | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |
| 3) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA | 1. | 0,48 | 1,24 | 7.677.576 | 64,83 | 1.182.568 | 9,99 | 2.983.235 | 25,19 | 11.843.379 |
| | 2. | 0,84 | 0,56 | 6.492.039 | 61,95 | 1.003.917 | 9,58 | 2.983.235 | 28,47 | 10.479.191 |
| 4) E.H.Z., AURREINPRIM. ARTE GRAFIKOAK | 1. | 0,4 | 1,12 | 6.771.763 | 65,22 | 1.053.350 | 10,15 | 2.557.830 | 24,63 | 10.382.943 |
| | 2. | 0,68 | 0,68 | 6.233.044 | 63,86 | 969.782 | 9,94 | 2.557.830 | 26,21 | 9.760.656 |
| 5) E.H.Z., ZURGAIAK ETA NEURRIKO ALTZARIAK EGIN ETA JARTZEA | 1. | 0,76 | 0,92 | 7.656.402 | 67,18 | 1.173.769 | 10,3 | 2.566.827 | 22,52 | 11.396.998 |
| | 2. | 0,52 | 0,92 | 6.491.592 | 64,47 | 1.010.414 | 10,04 | 2.566.827 | 25,49 | 10.068.833 |
| 6) E.H.Z.,FARMAZIA | 1. | 0,36 | 1,08 | 6.405.113 | 70,37 | 1.001.201 | 11 | 1.695.143 | 18,62 | 9.101.457 |
| | 2. | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |
| 7) E.H.Z., ELEKTRONIKA EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK | 1. | 0,64 | 0,96 | 7.246.512 | 66,19 | 1.117.014 | 10,2 | 2.584.822 | 23,61 | 10.948.348 |
| | 2. | 0,6 | 0,76 | 6.189.804 | 63,55 | 965.176 | 9,91 | 2.584.822 | 26,54 | 9.739.802 |
| 8) E.H.Z., MEKANIZATUA | 1. | 0,56 | 1,2 | 7.893.331 | 67,44 | 1.212.098 | 10,36 | 2.598.019 | 22,2 | 11.703.448 |
| | 2. | 0,6 | 0,8 | 6.362.318 | 63,94 | 990.098 | 9,95 | 2.598.019 | 26,11 | 9.950.435 |
| 9) E.H.Z., MERKATARITZA | 1. | 0,96 | 0,64 | 7.419.472 | 71,93 | 1.135.440 | 11,01 | 1.759.925 | 17,06 | 10.314.837 |
| | 2. | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

| | | IRAKASLEEN RATIOA | | LANGILEEN | MODULUA | GASTU | MODULUA | BESTELAKO | MODULUA | MODULUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HEZIKETA ZIKLOAK | IKAST. | TITULARRA | AGREGATUA | SOLDATAK | % | ALDAGARRIAK | % | GASTUAK | % | GUZTIRA |
| 1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA | 1º | 1,08 | 0,32 | 6.621.758 | 71,56 | 1.017.737 | 11 | 1.614.164 | 17,44 | 9.253.659 |
| | 2º | 1,04 | 0,2 | 5.910.079 | 70,02 | 915.741 | 10,85 | 1.614.164 | 19,13 | 8.439.984 |
| 2) G.H.Z., GAI ELEKTRONIKOAK GARATZEA | 1º | 1,32 | 0,24 | 7.441.538 | 68,59 | 1.131.247 | 10,43 | 2.277.105 | 20,99 | 10.849.890 |
| | 2º | 0,68 | 0,72 | 6.405.558 | 66,19 | 994.705 | 10,28 | 2.277.105 | 23,53 | 9.677.368 |
| 3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK | 1º | 0,8 | 0,48 | 5.952.874 | 69,31 | 926.844 | 10,79 | 1.708.639 | 19,89 | 8.588.357 |
| | 2º | 1,16 | 0,12 | 6.147.455 | 69,83 | 947.575 | 10,76 | 1.708.639 | 19,41 | 8.803.669 |
| 4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA | 1º | 0,96 | 0,48 | 6.729.413 | 69,28 | 1.035.749 | 10,66 | 1.948.874 | 20,06 | 9.714.036 |
| | 2º | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |
| 5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA | 1º | 0,64 | 0,88 | 6.901.482 | 71,98 | 1.067.170 | 11,13 | 1.619.563 | 16,89 | 9.588.215 |
| | 2º | 1 | 0 | 4.853.371 | 70,72 | 763.904 | 11,13 | 1.245.264 | 18,15 | 6.862.539 |
| 6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA | 1º | 0,96 | 0,64 | 7.419.472 | 72,38 | 1.135.440 | 11,08 | 1.695.143 | 16,54 | 10.250.055 |
| | 2º | 0,24 | 0 | 1.164.809 | 70,51 | 163.355 | 9,89 | 323.913 | 19,61 | 1.652.077 |
| 7) G.H.Z., SISTEMA INFORMATIKOEN ADMINISTRAZIOA | 1º | 1,2 | 0,52 | 8.066.738 | 72,87 | 1.224.026 | 11,06 | 1.778.820 | 16,07 | 11.069.584 |
| | 2º | 0,96 | 0,44 | 6.556.898 | 70,15 | 1.010.828 | 10,81 | 1.778.820 | 19,03 | 9.346.546 |
| 8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK | 1º | 0,96 | 0,8 | 8.109.531 | 71,34 | 1.235.131 | 10,86 | 2.023.374 | 17,8 | 11.368.036 |
| | 2º | 1,08 | 0,32 | 6.621.758 | 68,53 | 1.017.737 | 10,53 | 2.023.374 | 20,94 | 9.662.869 |
| 9) G.H.Z., EKOIZPEN MEKANIZATUA | 1º | 0,6 | 1 | 7.224.893 | 67,82 | 1.114.712 | 10,46 | 2.313.096 | 21,71 | 10.652.701 |
| | 2º | 1,2 | 0,2 | 6.686.618 | 66,7 | 1.024.646 | 10,22 | 2.313.096 | 23,07 | 10.024.360 |
| 10) G.H.Z., GARRAIO KUDEAKETA | 1º | 0,72 | 0,64 | 6.254.662 | 70,75 | 972.085 | 11 | 1.614.164 | 18,26 | 8.840.911 |
| | 2º | 1,24 | 0 | 6.018.178 | 70,31 | 927.259 | 10,83 | 1.614.164 | 18,86 | 8.559.60 |
| 11) G.H.Z., APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARANEPA | 1º | 1,16 | 0,48 | 7.700.088 | 72,68 | 1.171.878 | 11,06 | 1.722.135 | 16,26 | 10.594.101 |
| | 2º | 0,96 | 0,36 | 6.211.867 | 69,84 | 960.982 | 10,8 | 1.722.135 | 19,36 | 8.894.984 |
| 12) G.H.Z., ANATOMIA PATO-LOGIKOA ETA ZITOLOGIA | 1º | 0,88 | 0,68 | 7.203.718 | 70,41 | 1.105.911 | 10,81 | 1.920.802 | 18,78 | 10.230.431 |
| | 2º | 1,08 | 0 | 5.241.640 | 65,68 | 818.356 | 10,25 | 1.920.802 | 24,07 | 7.980.798 |
| 13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO INDUSTRIEN PRODUKZIOA | 1º | 0,36 | 1,24 | 7.095.172 | 66,04 | 1.100.892 | 10,25 | 2.547.033 | 23,71 | 10.743.097 |
| | 2º | 0,96 | 0,44 | 6.556.898 | 64,83 | 1.010.828 | 9,99 | 2.547.033 | 25,18 | 10.114.759 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | | Programa | | Proiektua | | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 98 | 121 | 0 | Lehendakaritza, Justizia eta Barne | 10 | Zuzendaritza eta ordezkaritza instituzionala | 10002 | Prentsa eta informazioa | Nafarroako herrialde-etxeentzako laguntzak | 00600-4 | 650 |
| | 165 | 1 | Ekonomia eta Ogasuna | 30 | Estatuarekiko hitzarmena | 30000 | Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -650 |
| 160 | 169 | 2 | Toki Administrazioa | 12 | Toki entitateen parte-hartze finantzarioa | 12000 | Transferentzia arrunten fondoa | Zenbait udalen egoera ekonomiko-finantzarioa | 11660-8 | 17.420 |
| | 165 | 1 | Ekonomia eta Ogasuna | 30 | Estatuarekiko hitzarmena | 30000 | Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -17.420 |
| I.V. 9 | 169 | 2 | Toki Administrazioa | 12 | Toki entitateen parte-hartze finantzarioa | 12000 | Transferentzia arrunten fondoa | Zenbait udalentzako konpentsazioa, biztanle ponderatuak bider aplikaturiko gastua aldagaia dela eta | BERRIA | 167.577 |
| | 165 | 1 | Ekonomia eta Ogasuna | 30 | Estatuarekiko hitzarmena | 30000 | Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -167.577 |
| 198 | 170 | 2 | Toki Administrazioa | 12 | Toki entitateen parte-hartze finantzarioa | 12002 | Beste finantza-jarduketa batzuk | Zizur Nagusiko Udalarekiko hitzarmena. Udaletxerako ekarpen berezia. | 92028-8 | 40.000 |
| | 260 | 8 | Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 40 | Teknologi berrikuntza sustatzea | 40002 | Nafarroako teknologi garapenaren plana | Kapital transferentziak sektoreetako eta gaikako proiektuetarako | 33400-1 | -40.000 |
| 212 | 173 | 3 | Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza | 20 | Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea | 20000 | Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea | Zaharberritze proiektuetan igogailuak ezartzeko dirulaguntza bereziak | BERRIA | 3.000 |
| | 240 | 6 | Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 31 | Telekomunikazioak | 31000 | Telekomunikazioak | Teleagindu, telemedia eta telemezularitza sarea | 29100-0 | -3.000 |
| 223 | 177 | 3 | Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza | 30 | Ingurugiroa kudeatzea | 30000 | Ingurugiroa kudeatzea | Hitzarmena, Azagrako herrigunean ureztatzeko ubidea desbideratzea | BERRIA | 90.000 |
| | 260 | 8 | Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 40 | Teknologi berrikuntza sustatzea | 40002 | Nafarroako teknologi garapenaren plana | Kapital transferentziak sektoreetako eta gaikako proiektuetarako | 33400-1 | -90.000 |
| 231 | 181 | 4 | Hezkuntza eta Kultura | 10 | Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10000 | Programako jarduera orokorrak | "Planetario de Pamplona, S.A." enpresarentzako transferentziak | 14610-8 | 6.000 |
| | 165 | 1 | Ekonomia eta Ogasuna | 30 | Estatuarekiko hitzarmena | 30000 | Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -6.000 |
| 250 | 182 | 4 | Hezkuntza eta Kultura | 10 | Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10001 | Eraikuntzak eta ekipamendua | Tafallako eta Berako ikastoletako obrak | BERRIA | 50.000 |
| | 237 | 6 | Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 21 | Errepide sarea zaintzea | 21001 | Kontserbazioa, ustiaketa eta bide segurtasuna | Bide segurtasuna: seinaleak eta balizak | 96043-3 | -50.000 |
| 251 | 183 | 4 | Hezkuntza eta Kultura | 10 | Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10001 | Eraikuntzak eta ekipamendua | Dirulaguntzak, gutxiengo etnikoak eskolatzeko eta aniztasunaz bereziki arduratzeko programak dauzkaten ikastetxe pribatuentzako, bai ekipamenduetarako bai obra txikiak egiteko | BERRIA | 20.000 |
| | 260 | 8 | Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 40 | Teknologi berrikuntza sustatzea | 40002 | Nafarroako teknologi garapenaren plana | Kapital transferentziak sektoreetako eta gaikako proiektuetarako | 33400-1 | -20.000 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | Programa | Proiektua | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 257 | 183 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 10 Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10002 Bekak eta laguntzak | Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako dirulaguntza | 14880-1 | 10.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -10.000 |
| 261 | 183 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 10 Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10003 Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntzak | Dirulaguntza, eskolatu gabeko haurrez arduratzen diren ikastetxeentzat: Ilundaingo Granja, Etxabakoizko Lantegia eta beste batzuk | 14920-4 | 2.177 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -2.177 |
| 269 | 184 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 10 Eskolatzea irakaskuntza maila guztietan hobetzea | 10004 Plangintza eta zerbitzu osagarriak | Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea | 15040-7 | 15.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -15.000 |
| I.V. 14 | 184 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 20 Lanbide heziketa garatzea | 20000 Programako jarduera orokorrak | Lanbide Heziketako ikas-ekinezko heziketa (lanbide moduluak) garatu eta aztertzea | 15120-9 | ---- |
| | 184 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 20 Lanbide heziketa garatzea | 20000 Programako jarduera orokorrak | Lanbide Heziketa garatu eta aztertzea | 15120-9 | KONTUSAILAREN IZENA ALDATZEA |
| I.V. 17 | 188 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 40 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | 40000 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | Azterlanak eta proiektuak | 15660-0 | 7.000 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -7.000 |
| 303 | 188 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 40 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | 40000 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako dirulaguntza | 15670-7 | 286.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -286.000 |
| 306 | 188 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 40 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | 40000 Unibertsitateko irakaskuntzak eta ikerketa | Unibertsitateko irakasleen egoera hobetu, egonkortu eta sustatzeko programa nazionala | BERRIA | 14.175 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -14.175 |
| 307 | 190 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 50 Kultura jarduera orokorren kudeaketa eta finantzaketa | 50000 Programako jarduera orokorrak | Argitaletxeen fondoak erostea | 16110-7 | 4.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -4.000 |
| 310 | 190 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 50 Kultura jarduera orokorren kudeaketa eta finantzaketa | 50000 Programako jarduera orokorrak | Kultur etxeen eta udaleko beste kultur gune batzuen eraikuntza eta ekipamendua | 90057-0 | 50.000 |
| | 233 | 6 Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 11 Proiektuak, teknologiak eta lan hidraulikoak | 11001 Lan hidraulikoak | Urtegiak, azpiegitura hidraulikoa eta obra osagarriak | 96034-4 | -50.000 |
| 312 | 190 | 42110-2279-2-4561 kontusailaren kode ekonomikoa aldatu egin da: aurrerantzean 4600 izanen da | | | | | |
| 316 | 190 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 51 Egintza kulturala | 51000 Egintza kulturala | Hitzarmenak entitate artistiko eta kulturalekin | 16260-0 | 10.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -10.000 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | Programa | Proiektua | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 320 | 191 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 51 Egintza kulturala | 51000 Egintza kulturala | Ondare filmografikoa | 16450-5 | 2.000 |
| | 173 | 3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza | 10 Lurralde plangintza eta hirigintza planeamendua | 10000 Lurralde plangintza eta hirigintza planeamendua | Hirigintzako lurralde informazio sistema | 12660-3 | -2.000 |
| 328 | 190 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 51 Egintza kulturala | 51000 Egintza kulturala | Antzerki zikloa, Calderón de la Barcaren urteurrena dela eta | BERRIA | 3.600 |
| | 190 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 51 Egintza kulturala | 51000 Egintza kulturala | Erriberriko antzerkialdia | 16200-6 | -3.600 |
| 333 | 193 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 52 Ondare historikoa | 52000 Ondare historikoa | Pedagogi jarduerak Museoan | 16760-1 | 2.000 |
| | 173 | 3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza | 10 Lurralde plangintza eta hirigintza planeamendua | 10000 Lurralde plangintza eta hirigintza planeamendua | Hirigintzako lurralde informazio sistema | 12660-3 | -2.000 |
| 340 | 192 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 52 Ondare historikoa | 52000 Ondare historikoa | Ablitasko gaztelua zaharberritzea | BERRIA | 15.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -15.000 |
| 344 | 193 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 52 Ondare historikoa | 52000 Ondare historikoa | Argazki ondarea kontserbatzea eta erakustea | BERRIA | 5.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -5.000 |
| I.V. 15 | 195 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 60 Hizkuntz politika | 60000 Hizkuntz politika | Dirulaguntza, Nafarroa Oinez 99 | 17340-7 | --- |
| | 195 | 4 Hezkuntza eta Kultura | 60 Hizkuntz politika | 60000 Hizkuntz politika | Dirulaguntza, Nafarroa Oinez 2000 | 17340-7 | KONTUSAILAREN IZENA ALDATZEA |
| 382 | 199 | 5 Osasuna | 11 Osasun laguntza | 11002 Elkarteen eta organo transplanteen koordinazioa | Nafarroako Odol Emaile Elkarteari dirulaguntza | 18400-0 | 10.000 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -10.000 |
| 384 OSOKO BILKURA | 199 | 5 Osasuna | 11 Osasun laguntza | 11002 Elkarteen eta organo transplanteen koordinazioa | ALCER elkartearentzako dirulaguntza | BERRIA | 10.000 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -10.000 |
| 391 | 201 | 5 Osasuna | 12 Irakaskuntza, ikerketa eta garapena. Osasun arloa. | 12002 Ikerketa | Osasun kudeaketa ikertzeko proiektua: Mikel Larumbe Zazu Beka | 18890-0 | 5.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -5.000 |
| 421 | 222 | 5 Osasuna | 47 Oinarrizko laguntza eta adimen osasuna | 47000 Oinarrizko laguntzako eta adimen osasuneko jarduera orokorrak | Nafarroako Osasun Kontseiluentzako dirulaguntza | BERRIA | 5.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -5.000 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | Programa | Proiektua | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I.V. 16 eta I.V. 3 OSOKO BILKURA | 226 | Osasuna | 47 Oinarrizko laguntza eta adimen osasuna | 47005 NGOIren eta O-NOZen arteko koordinazio soziosanitariorako jarduerak | NGOIren eta O-NOZen arteko koordinazio soziosanitariorako programa, ekimen, proiektu edo ekintzak. | BERRIA | 50.000 |
| | 226 | 5 Osasuna | 47 Oinarrizko laguntza eta adimen osasuna | 47005 NGOIren eta O-NOZen arteko koordinazio soziosanitariorako jarduerak | NGOIren eta O-NOZen eta ANASAPSen arteko koordinazio soziosanitariorako programa, ekimen, proiektu edo ekintzak. | 25660-4 | -40.000 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -10.000 |
| I.V. 18 | 242 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 00 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | 00000 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | Nekazaritzako sindikalismoarentzako dirulaguntza | 29740-8 | 1.500 |
| | 240 | 6 Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 31 Telekomunikazioak | 31000 Telekomunikazioak | Sare korporatiboa zaintzea eta ustiatzea | 29010-1 | -1.500 |
| 466 | 242 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 00 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | 00000 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | CESen dauden nekazaritzako elkarteentzako diru-ordaina | BERRIA | 1.000 |
| | 240 | 6 Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 31 Telekomunikazioak | 31000 Telekomunikazioak | Sare korporatiboa zaintzea eta ustiatzea | 29010-1 | -1.000 |
| 471 | 245 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 10 Nekazaritza babestu eta hobetzea | 10000 Landare osasuna eta ekoizpena | Udalen Federazioarekiko lankidetza, sasoikako langileentzako lokalak prestatzeko | 30290-8 | 10.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -10.000 |
| I.V. 19 | 246 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 10 Nekazaritza babestu eta hobetzea | 10002 Nekazaritzako ustiategien eraginkortasuna hobetzea | Nekazaritzan eta abeltzaintzan plastikoak kentzeko laguntza | BERRIA | 5.000 |
| | 240 | 6 Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 31 Telekomunikazioak | 31000 Telekomunikazioak | Telekomunikazioen kableak Nafarroako Gobernuaren eraikinetan | 29060-8 | -5.000 |
| 500 | 250 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 21 Merkatuak arautzea. Nekazaritza elikaduraren kalitatea sustatzea eta hobetzea | 21000 Nekazaritzako industrializazioa eta merkaturatzea hobetzea | Dirulaguntza, Ebroko laborategia, ikerlanak, garapen jarduerak, etab. | 31330-6 | 3.000 |
| | 154 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 14 Ondarea kudeatzea eta kontratazioa | 14002 Eskubideak eta ondasun higiezinak kudeatzea | Eraikinak, eta ondare higiezina instalatzeko, birmoldatzeko eta altzariz hornitzeko obrak | 08480-3 | -3.000 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | Programa | Proiektua | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 501 | 250 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 21 Merkatuak arautzea. Nekazaritza elikaduraren kalitatea sustatzea eta hobetzea | 21000 Nekazaritzako industrializazioa eta merkaturatzea hobetzea | Dirulaguntza: kooperatiba araubideko produkzio-bideak eta makinak | 31340-3 | |
| | 244 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 10 Nekazaritza babestu eta hobetzea | 10000 Landare osasuna eta ekoizpena | Dirulaguntza: kooperatiba araubideko produkzio-bideak eta makinak | 31340-3 | KONTUSAILAREN KOKAPENA ALDATZEA |
| 507 | 250 | 7 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura | 21 Merkatuak arautzea. Nekazaritza elikaduraren kalitatea sustatzea eta hobetzea | 21000 Nekazaritzako industrializazioa eta merkaturatzea hobetzea | Ebroko laborategien planta birmoldatzea | BERRIA | 1.000 |
| | 154 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 14 Ondarea kudeatzea eta kontratazioa | 14002 Eskubideak eta ondasun higiezinak kudeatzea | Eraikinak eta instalazio berriaren obrak | 08480-3 | -1.000 |
| I.V. 20 | 258 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 30 Industri jardueraren sustapena | 30002 Ekoizpenaren berrantolamendua | Enplegu antena, COMEPOR enpresako langileei beste lan bat aurkitzeko | BERRIA | 1.000 |
| | 258 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 30 Industri jardueraren sustapena | 30002 Ekoizpenaren berrantolamendua | Abalatu diren kredituen hobaria, bideragarritasun azterlanen dirulaguntzak, etab. | 98005-1 | -1.000 |
| 550 | 268 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 81 Enpleguaren sustapena | 81002 Europako ekimenak | Enplegu ekimenetarako egintzak, Europako Batasunarekin batera finantziatuak. | BERRIA | 441.000 |
| | 268 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 81 Enpleguaren sustapena | 81002 Europako ekimenak | Enplegu ekimenetarako egintzak, HORIZON kapitulua. Minusbaliatuak laneratzea | 98043-4 | -42.000 |
| | 268 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 81 Enpleguaren sustapena | 81002 Europako ekimenak | Enplegu ekimenetarako egintzak, NOW kapitulua. Emakumeak laneratzea | 98044-4 | -68.000 |
| | 268 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 81 Enpleguaren sustapena | 81002 Europako ekimenak | Enplegu ekimenetarako egintzak, YOUTHSTART kapitulua. Gazteak laneratzea | 98045-2 | -20.000 |
| | 268 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 81 Enpleguaren sustapena | 81002 Europako ekimenak | ADAPT ekimenetarako egintzak. Langilean teknologia erabiltzeko trebatzea. | 98042-6 | -311.000 |
| 559 | 271 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 00 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | 00000 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | Mendebaldeko Saharako erreferendumaren aldeko egintzetarako laguntzak | BERRIA | 3.000 |
| | 154 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 14 Ondarea kudeatzea eta kontratazioa | 14002 Eskubideak eta ondasun higiezinak kudeatzea | Eraikinak, eta ondare higiezina instalatzeko, birmoldatzeko eta altzariz hornitzeko obrak | 08480-3 | -3.000 |
| 571 | 274 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 20 Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | 20000 Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendaritza eta zerbitzu nagusiak | Itxaropenaren telefonoaren dirulaguntza | 36300-1 | 1.000 |
| | 154 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 14 Ondarea kudeatzea eta kontratazioa | 14002 Eskubideak eta ondasun higiezinak kudeatzea | Eraikinak, eta ondare higiezina instalatzeko, birmoldatzeko eta altzariz hornitzeko obrak | 08480-3 | -1.000 |

| E. zk. | Or. | Departamentua | Programa | Proiektua | Kontusailaren azalpena | Lerro zenbakia | Pezetak, milakotan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 585 | 275 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 21 Haurrak eta gazteak | 21002 Zeharkako egintzak, haurrak eta gazteak | Lantegi-eskolekiko lankidetza hitzarmena | BERRIA | 42.250 |
| | 275 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 21 Haurrak eta gazteak | 21002 Zeharkako egintzak: haurrak eta gazteak | Dirulaguntzak beste elkarte batzuentzat | 36600-0 | -42.250 |
| 592 | 278 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 23 Gutxituak | 23002 Zeharkako ekintzak: ezintasuna duten pertsonak | Itunak eta hitzarmenak elkarteekin | 37120-9 | 25.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -25.000 |
| I.V. 22 | 278 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 23 Gutxituak | 23002 Zeharkako ekintzak: ezintasuna duten pertsonak | ANASAPSekiko hitzarmena | BERRIA | 40.000 |
| | 226 | 5 Osasuna | 47 Oinarrizko laguntza eta adimen osasuna | 47005 NGOIren eta O-NOZen arteko koordinazio soziosanitariorako jarduerak | NGOIren eta O-NOZen eta ANASAPSen arteko koordinazio soziosanitariorako programa, ekimen, proiektu edo ekintzak | 25660-4 | -40.000 |
| 607 | 279 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 24 Familia eta komunitatea | 24002 Zeharkako ekintzak: bergizarteratzea | Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak | 37360-0 | 20.000 |
| | 260 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 40 Teknologi berrikuntza sustatzea | 40002 Nafarroako teknologi garapenaren plana | Kapital transferentziak sektoreetako eta gaikako proiektuetarako | 33400-1 | -20.000 |
| I.V. 24 | 279 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 24 Familia eta komunitatea | 24003 Familia eta komunitatea | Erditze multiplea izan duten familiei laguntzea | BERRIA | 10.000 |
| | 151 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 12 Aurrekontu eta finantza kudeaketa | 12003 Finantza politika | Zorpetze korrituak | 07910-9 | -10.000 |
| 624 | 280 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 25 Kotizaziorik gabeko pentsioak | 25001 Kotizariorik gabeko pentsioak | Pentsioen igoera osagarria | BERRIA | 1.000 |
| | 240 | 6 Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 31 Telekomunikazioak | 31000 Telekomunikazioak | Telekomunikazioen kableak Nafarroako Gobernuaren eraikinetan | 29060-8 | -1.000 |
| 638 | 282 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 40 Kirol sustapena eta gazteri sustapena | 40001 Kirol jarduera sustatzea | Toki entitateen kirol instalazioak | 90021-0 | 40.000 |
| | 260 | 8 Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana | 40 Teknologi berrikuntza sustatzea | 40002 Nafarroako teknologi garapenaren plana | Kapital transferentziak sektoreetako eta gaikako proiektuetarako | 33400-1 | -40.000 |
| 642 | 283 | 9 Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria | 40 Kirol sustapena eta gazteri sustapena | 40001 Kirol jarduera sustatzea | Kirol teknifikazioko zentroak | BERRIA | 15.000 |
| | 165 | 1 Ekonomia eta Ogasuna | 30 Estatuarekiko hitzarmena | 30000 Estatuarekiko hitzarmena | Estatuarekiko aportazioa | 10860-5 | -15.000 |

# Zerga neurriei buruzko Foru Legea

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko abenduaren 28an egindako Osoko Bilkuran, zerga neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzrreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Zerga neurriei buruzko Foru Legea

Foru lege honek askotariko aldaketak egiten dizkie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gainekoari, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergei eta beste zerga neurri batzuei.

1. artikuluak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketak ditu gai; hona aldaketa horietako esanguratsuenak: aseguru-hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizitza aseguruak erregulatzea (komunzki “unit lined” deituak), ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egiten den kenkaria handitzea minusbaliatuei, eta minusbaliatuentzako pentsio planetan dirua sartzeagatik zerga oinarria murrizteko araubide berezia ezartzea.

Halaber, gutxieneko pertsonala gaurkotu egiten da eta zergaren eskala 100eko 2raino jaitsarazten, ehuneko hori aurreikusten baita hurrengo ekitaldirako.

2. artikuluak Sozietateen gaineko Zerga du gai; hona aldaketa nagusiak: “Unit linked” direlakoak arautzea, zazpi urtetatik hamarrera zabaltzea galerak konpentsatzeko epea, sozietateak erdibitzeko beste kasu bat ezartzea eta “jardueraadar” kontzeptua aldatzea bategiteen araubide berezia aplikatzeko. Azkenik, hamaseigarren xedapen iragankorreko 2. zenbakia indargabetu da, eta beraz hemendik aurrera sozietate gardenak ere beharturik daude pagamendu zatituak egitera orokorki ezarritako kondizio berberetan.

3. artikuluak ezartzen du 10 urteko epe berri bat aplikatuko dela kooperatiben araubide fiskalari galerak konpentsatzeko.

4. artikuluak, Oinordetzen eta Dohaintzen Zergaren gainean ari baita, ezartzen du ezkontideek konkisten ezkontza sozietatea desegitean egiten dituzten aportazioak eta adjudikazioak erabat salbuetsirik egonen direla. Orain arte 100eko 0,80an kargaturik zeuden egintza juridiko dokumentatuak ziren partez.

Bestalde, akats bat atzemanik, laugarren graduko ahaide kolateralei dagokien tarifa zuzentzen da; tarifa hori 23/1998 Foru Legeak onetsi zuen espresuki.

5. artikuluak, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaz ari dela, zerga horren testu birbildua aldatzen du eta bertan zerga-gaitzat jasotzen ditu zorrak norbere gain hartzeagatik espresuki egiten diren adjudikazioak; hainbat onura fiskal mantendu egiten ditu, bestalde, teknikoki zehatzago utzirik, kapital-arrisku entitateei, hipoteka titulizaziorako fondoei eta inbertsio fondo eta sozietateei dagozkienak.

Fundazioei dagokionez, 6. artikuluak aldatu egiten du 10/1996 Foru Legea, zehatzago definitzeko ustiategi ekonomikoak zein kasutan egonen diren Sozietateen gaineko Zergaz salbuetsita. Eta aktiboko ondasunak (ez bakarrik materialekoak) sozietateei emaitza egiteko moduko ondasuntzat aipatzen ditu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo emailearen Sozietateen gaineko Zergan aurreikusten den kenkaria egiteko eskubidea ematen dutela.

7. artikuluak ezartzen du zein zerga araubide izanen duten garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek (Garapenaren aldeko Nazioarteko Laguntzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legean arautuak), eta bai erakunde horiei ematen zaizkien dirutzek ere.

Tasen alorrean, 8. artikuluak aldatu egiten du 144/1987 Legegintzako Foru Dekretua, tasa batzuk eguneratzeko eta beste batzuetan beste zenbait kasu sartzeko Osasun Departamentuaren zein Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren alorrean.

Toki administrazioko zergei dagokienez, 9. artikuluak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaz ari dela, tarifa berriak sortzen ditu, zero kuota ere sortzen du zerbitzu bat ordainik gabe ematen zaienerako 10/1996 Foru Legeak aipatzen dituen fundazio eta entitateei, eta argitzen du zer eragin duen “azalera” zerga kontzeptuak lehendik ere espresuki kontzeptua kontuan hartu zuten kuotetan.

Gaurkotu egiten dira, gainera, 10. artikuluan, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak, 1998ko urtarrilaren 1ean indar hartu bai-

tzuten, tarifa horiek gutxi gora behera 100eko 4 handituz.

Lehenbiziko xedapen gehigarriak beste salbuespen bat arautzen du, Biescasko uholdeek sortu zituzten kalte pertsonalak berdintzeko laguntza pertsonalen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako.

Azkenik, hainbat xedapen ezartzen dira ondoko kasu hauetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako salbuespenak arautzeko: administrazio publikoek pagatutako kalteordainak, galeren konpentsazioak, "unit linked" direlakoak eta zergaldia bukatzeko kasu berriak Sozietateen gaineko Zergan.

**1. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko ondoko artikuluei honela aldatuko zaie testua:

Bat. 7. artikuluari p) letra erantsiko zaio.

"p) Administrazio publikoek pertsona bati zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondoriozko kalte fisiko nahiz pisikikoengatik pagatu dizkioten kalteordainak, baldin eta administrazio publikoek Ondare Erantzukizunaren gaietan dituzten Prozeduren Erregelamendua ezartzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan agintzen diren prozeduren arabera ezarriak badira.

Salbuetsirik egonen da, halaber, urriaren 8ko Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko 32/1999 Legeak aipatzen dituen kalteordainen ondorioz jasotzen den dirua."

Bi. 17.2 artikuluari testua aldatu eta 3. idatz-zatia erantsiko zaio.

"2. Irabazi osoak denak kontatuko dira, non eta honako kenkari hauetako bat aplikatu behar ez zaien:

a) 100eko 30, bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten irabazietarako, (baldin ez badira periodikoak edo behin eta berriz jasotzen direnak), eta erregelamenduaren arabera denboran modu nabarmen irregularrean jasotakotzat jotzen direnetarako. Irabazi horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

b) 100eko 40, foru lege honetako 14.2.a) artikuluak aipatzen dituen prestazioetarako, baldin eta kapital gisa jasotzen badira eta lehen jasoalditik bi urte iragan badira.

c) 100eko 50, elbarritasunaren prestazioetatik heldu diren irabazietarako, erregelamenduak agindu bezalako moduan eta graduetan, kapital gisa jaso badira, foru lege honetako 14.2.a) artikuluak aipatzen dituen kasuetan.

d) 100eko 70, gizitza aseguruek hildakoan emandako prestazioen irabazietarako, baldin eta aseguratutako arrisku bakarra hiltzea edo elbarritzea bazen, 14.2.a)5gn. artikuluak aipatzen dituen kasuetan."

"3. Aurreko idatz-zatian aipatu diren kenkariak ez zaizkie aplikatzekoak foru lege honetako 14.2.a) artikuluak aipatzen dituen prestazioei, baldin eta errenta gisa jasotzen badira, eta ezta zerga oinarria gutxitzen duten enpresa kontribuzio inputatuei ere, foru lege honetako 55.1 artikuluak agintzen duenez."

Hiru. 32. artikuluari 3. idatz-zatia erantsiko zaio.

"3. Artikulu honetako 2. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren kenkariak ez zaizkio aplikatuko bizitza aseguruen kontratuengatik jasotako diruari, baldin eta kontratu horietan hartzaileak bere gain hartzen bazuen inbertsio arriskua, non eta kontratu horietan honako kasuetako bat gertatzen ez den:

A) Hartzaileak ez izatea polizari atxikitako inbertsioak aldatzeko ahalmenik.

B) Hornidura matematikoak ez egotea honako hauetako batean inbertituta:

a) Inbertsio kolektiboko instituzioen egintzak edo parte hartzeak, kontratuetan aurreikusiak, baldin eta:

a') Inbertsio Kolektiboko Instituzioak arautzeko abenduaren 27ko 46/1984 Legearen arabera moldatutako inbertsio kolektiboko instituzioak badira.

b') Europako Kontseiluaren 1985eko abenduaren 20ko 85/611/CEE zuzentarauaren babespeko inbertsio kolektiboko instituzioak badira.

b) Erakunde aseguratzailearen balantzean bananduta ageri diren aktibo multzoak, honako baldintzak betetzen badira:

a') Betiere erakunde aseguratzaileari dagokio finkatzea zer aktibok osatzen duten banandutako aktibo multzo bakoitza, eta erakunde horrek, horretarako, askatasun osoa izanen du aktiboak hautatzeko, aktibo multzoaren arrisku profilari edo antzeko inguruabar objetiboei buruzko irizpide orokor eta aurretik jarriak beste mugarik ez duela.

b') Hornidura teknikoak inbertitzeko gai diren aktiboetan inbertitu beharko dira hornidurak; akti-

bo horiek zein diren azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak onetsi zuen Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko Erregelamenduaren 50. artikuluak ezartzen du, hortik ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubide errealak kenduta.

c’) Aktibo multzo bakoitza inbertitzeko, bete egin beharko dira honako arauek aseguru kontratuen dibertsifikaziorako eta sakabanaketarako orokorki finkatu dituzten mugak: Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko azaroaren 9ko 30/1995 Legea, haren erregelamendua, azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak onetsia, eta lege hori garatzeko ematen diren beste arauak.

d’) Hartzaileak zilegi izango du soilik banandutako aktibo multzoen artetik hautatzea zeinetan inbertitu behar duen erakunde aseguratzaileak aseguruaren hornidura matematikoa, baina inoiz ez du zilegi izango esku hartzea zein aktibo jakinetan inbertitzen diren erabakitzeko, multzo banandu bakoitzaren barrenean, hornidura horiek.

Kontratu horietan hartzaileak edo aseguratuak zilegi izango dute hautatzea kontratuetan espresuki aipatutako inbertsio kolektiboko instituzio kopuru edo banandutako aktibo multzo kopuru baten artean, betiere 10 edo gutxiago, eta ez da zilegi izanen hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat zehaztapen berariazkoak egitea.

Idatz-zati honek aipatzen dituen baldintzak kontratuak indarrean iraun arteko guztian bete beharko dira.”

Lau. 48. artikuluaren 2. idatz-zatiaren idazkera berria.

“2. Bazkideei egotzi beharreko oinarria Sozietateen gaineko Zergaren arauen ondoriozkoa izanen da.

Likidazio oinarriaren zenbatekoan edozein aldaketa badago, bai administrazioaren ekintzen ondorioz bai edozein motatako errekurtso ebazteaen ondorioz, aldaketa horrek berarekin ekarriko du, orobat, aldea bazkideei egoztea.

Likidazio oinarri negatiboak ez dira egotziko, eta sozietateak eskuraturiko zerga-oinarri positiboak gutxitu ditzakete, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 40. artikuluaren arabera.”

Bost. 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 6. puntuaren b) letrako testua aldatu eta honela geldituko da:

“b) Pentsio Plan eta Fondoak arautzeko ekainaren 8ko 8/1987 Legeko 5.3. artikuluak ezartzen duen gehieneko muga.”

Sei. 55. artikuluko 3. idatz-zatiaren testua aldatu eta honela geldituko da:

“3. Gutxieneko pertsonalagatik.

561.000 pezeta subjektu pasibo bakoitzeko.”

Zazpi. 59. artikuluko 1. idatz-zatiaren testua aldatu eta honela geldituko da:

“1. Likidazio oinarri orokorra honako eskala honetan ageri diren tipoen arabera kargatuko da:

| Likidazio oinarriaren goiko muga (pezetatan) | Kuota osoa (pezetatan) | Likidazio oinarriaren gainerakoa (goiko muga, pezetatan) | Aplikatzeko tipoa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 204.000 | 15 |
| 204.000 | 30.600 | 255.000 | 18 |
| 459.000 | 76.500 | 1.020.000 | 23 |
| 1.479.000 | 311.100 | 1.020.000 | 25 |
| 2.499.000 | 566.100 | 2.040 | 28 |
| 4.539.000 | 1.137.300 | 2.040.000 | 37 |
| 6.579.000 | 1.892.100 | 3.060.000 | 41 |
| 9.639.000 | 3.146.700 | gainerakoa | 47” |

Zortzi. e) letra erantsiko zaio 62. artikuluko 4. idatz-zatiari.

“e) Kenkari honetarako, ezkontzaren araubide ekonomikoa konkista edo ganantzialak direlarik, suposatu egingo da ezkontzak iraun duen artean pagatu diren dirutzak, idatz-zati honetako b) letrak aipatzen dituenak, konkista edo ganantzial sozietatearen fondoekin egin direla, eta kenkaria ezkontide bakoitzari bakoitzak sozietate horretan duen partehartzearen proportzioan dagokio.”

Bederatzi. f) letra erantsiko zaio 62. artikuluko 4. idatz-zatiari.

“f) Halaber, zilegi izango dute ohiko etxebizitzaren kenkaria aplikatzea etxebizitza horretan egokitze obrak edo instalazioak egin dituzten subjektu pasiboek, bai eta lan horiek eraikinaren parte komunetan egiten badira edo finka hori eta kalea lotzeko beharrezko pasabideetan, baldintza hauen pean:

a’) Administrazio eskudunak zertifikatu beharko du egokitze obrak edo instalazioak beharrezkoak direla etxearen irispidea eta zentzumen komunikazioa minusbaliatuek egoki eta duin erabili ahal izateraino moldatzeko; hori erregelamendu bidez arautuko da.

b’) Subjektu pasiboaren etxean egokitze lan edo instalazioak egiteko arrazoia baldin bada subjektu pasiboaren minusbalioa, haren ezkontidearena edo harekin bizi diren aurreko edo ondorengoena, lan horiek ere kenkari eskubidea emanen dute.

c') Etxebizitzan, aurreko b') letran aipatzen direnetako edozein pertsonak jabe, maizter, maizter-orde, edo usufruktudun gisa bizi beharko du.

Aurreko etxebizitza minusbaliagatik desegokia den kasuetan, ulertuko da hori ezinbestez etxebizitzaz aldatzeko arrazoia dela."

Hamar. 67. artikuluko b) letraren testua aldatu eta honela gelditurko da:

"b) Atzerrian kargatutako likidazio oinarriaren zatiari foru lege honetako 59.2 artikuluak aipatzen duen batezbesteko karga tasa aplikatzetik heldu den emaitza, zerga oinarri orokorrean integratu bada, eta 60. artikuluak aipatzen duen karga tasa, zerga oinarri berezian integratu bada."

Hamaika. 78. artikuluari beste idatz-zati bat eranstea.

"9. Ekitaldiaren hasieran eta bukaeran bizitza-aseguru kontratuetan polizari atxikita zeuden aktiboen likidazio balioen arteko aldea ekitaldi bakoitzeko higiezin-kapitalaren emaitzatzat joko da baldin eta kontratu horietan hartzaileak bere gain hartzen badu inbertsioaren arriskua eta ez badituzte betetzen foru lege honetako 32. artikuluko 3. idatz-zatiko baldintzak.

Halakotzat jotako errenten zenbatekoa kendu eginen zaio kontratuetako dirutzak jasotzetik heldu den errendimenduari."

Hamabi. Xedapen gehigarri bat eranstea.

"Hamabosgarrena. Minusbaliatuen alde eratutako pentsio planen eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateen prestazio eta dirutzen zerga araubidea.

1. Honako zerga araubidea aplikatuko zaie pentsio planei eta haietatik heldu diren prestazioei, baldin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 40/1998 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriak agintzen dituen betekizunak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte:

a) Zilegi izango da pentsio plan horietara sartzen diren dirutzei murrizketa egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren parte orokorrean, honako gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a') Partaide bakoitzak bere ahaide minusbaliatu baten alde urtean sartutako dirutzen kasuan: 1.100.000 pezeta urtean. Horrek ez du galarazten beren pentsio planetan ere dirutza sartzea, foru lege honetako 55. artikuluak ezartzen dituen mugen barrenean.

b') Partaide munusbaliatuek berek urtean sartzen dituzten dirutzetarako: 2.200.000 pezeta urtean. Hartarako, minusbaliatu baten alde aportazio bat baino gehiago egiten badira, aurrena minusbaliatuak berak egindako aportazioei egin beharko zaie murrizketa, eta ondoren baizik ez beste norbaitek haren alde egindako aportazioei, beste norbait horren zerga oinarrietan, proportzionalki, eta edozein kasutan ere minusbaliatu bakar baten alde aportazioak egin dituzten pertsona guztien murrizketak ez dira inoiz izanen 2.200.000 pezeta baino gehiago.

b) Partaide bakoitzak minusbaliatuen alde egindako aportazioak ez dira Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren pean egonen.

c) Minusbaliatuek errenta gisa jasotako prestazioetatik heldu diren lan-irabaziek, xedapen honek aipatzen dituen aportazioei dagozkienak, murrizketa izanen dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan: lanbidearteko soldata gutxienekoa halako biraino.

Minusbaliotasuna duten pertsonek kapital gisa jasotako prestazioak direnean, xedapen honek aipatzen dituen aportazioei dagozkienak, foru lege honen 17.2.b) artikuluan aurreikusiriko murrizketa 100eko 50 izanen da, betiere lehenbiziko aportaziotik bi urte baino gehiago iragan direnean.

2. Xedapen gehigarri honetan araututako araubidea ezarriko zaie gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako aportazioei eta beraiek minusbaliatuen alde egindako prestazioei, aurreko idazatian aurreikusiriko baldintzak betetzen dituztenean. Kasu horretan xedapen honetarako ezarritako mugak pentsio planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako aportazioei ere ezarriko zaizkie."

**2. artikulua.** Sozietateen gaineko zerga.

2000. urteko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldien ondorioetarako, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen ondoko artikuluak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, honela geratuko dira idatzirik:

Bat. 6. zenbakia gehitzea 35. artikuluari.

"6. Probisioak kentzen direnean, haien xedea betetzeko erabili ez direlako, ekitaldiko dirusarretako kontu batean abonatu gabe, haien zenbatekoa dotazioa egin duen entitatearen zerga-oinarrian sartuko da, dotazio hori gastu kengarritzat jo den neurrian."

Bi. 7. zenbakia gehitzea 35. artikuluari.

"7. Entitateak bizitza aseguruen kontratuetan, inbertsioaren arriskua hartu badu, onuraduna

denean edo erreskaterako eskubidea onarturik duenean, betiere sartuko du zerga-oinarrian polizari zergaldi bakoitzeko hasieran eta bukaeran atxikitutako aktiboen balore likidatzailearen arteko diferentzia.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko enpresek pentsioetarako hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten seguruei, 1988ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan aurreikusi terminoetan egin denean.

Egotzitako errenten zenbatekoak gutxiagotu egingo du kontratuen kantitateak jasotzetik sortutako errendimendua."

Hiru. 40. artikuluaren idazkera berria.

"40. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

1. Likidazio-oinarri positiboa murrizten ahal da, aurreko hamar urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio-oinarri negatiboen bidez.

2. Aurreko artikuluan aipatzen den likidazio-oinarri negatiboa gutxiagotuko da, kasua bada, eta gutxitze hori izanen da kenketa batetik ateratako alde positiboaren zenbatekoa; hain zuzen ere, bazkideek edozein titulurengatik egindako ekarpenen balioa –partaidetza eskuratuari dagokiona– ken haren eskurapenaren balioa eginez ateratzen dena, honako gorabehera hauek biltzen direnean:

a) Entitatearen kapital sozialean edo horren emaitzetan partaide izateko eskubideen gehiengoa, pertsona edo entitate batek edo pertsona edo entitate lotetsien talde batek eskuratzen badu, zerga-oinarri negatiboaren zergaldia amaitu eta gero.

b) Aurreko letrak aipatzen dituen pertsonek edo entitateek, zerga-oinarri negatiboaren zergaldia amaitzen den unean 100eko 25etik beherako partaidetza izan badute.

Nolanahi dela ere, eskabidea egin eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak onartuz gero, ez da likidazio-oinarri negatiboa gutxiagotuko, baldin eta, akziodunak aldatuagatik, lehen izandakoarekin zerikusia izan edo hartatik sortutako enpresa-jarduerak jarraitzen badu.

3. Sorkuntza berriko entitateek sortutako likidazio-oinarri negatiboek murrizten ahal dituzte jarraian datozen hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarriak, denbora hori kontatzen hasita zerga-oinarria positiboa ateratzen den lehenbiziko zergaldiaren hasieratik.

Ez dira zenbaki honetan sartzen enpresa-ondoregotza edo jarraipen kasuak."

Lau. c) eta d) letrak gehitzea 48. artikuluaren 2. zenbakiari.

"c) Entitatearen forma juridikoa aldatu eta horrek ekartzen duenean sortutako entitatea zerga honen pean ez egotea.

Zergaldi honi dagokion zerga-oinarria zehazteko ulertuko da entitatea foru lege honen 26.1.c) eta 33.1 artikuluetan ezarritako ondorioekin desegin dela."

"d) Entitatearen forma juridikoa aldatu eta horrek ekartzen duenean haren karga tasa aldatzea edo zerga araubide berezi bat ezartzea.

Aldaketa izan denean dauden ondare elementuak eskualdatzetik eratorritako errenta, hura gertatu ondoren egin denean, era linealean sortu dela ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, eskualdatutako elementua edukitzen den denboran. Aldaketa izan baino lehen sortutako errenta zatiari ezarriko zazkion karga tasa eta zerga araubidea izanen dira entitateari ezarri beharrekoak hasierako forma juridikoa gorde izan balu."

Bost. 72. artikuluaren 3. zenbakiaren idazkera berria.

"3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariek, 63. artikuluaren azken lerroaldean eta 71. artikuluan ezarritakoak izan ezik, ezin izanen dute barne ezarpen eta nazioarteko ezarpen bikoitzak saihesteko hobarietan eta kenkarietan kuota osoa murrizteaaren ondoriozko kuota likidoa gainditu.

Muga bera errespetatuz, nahikoa kuotarik egon ez delako kendu ez diren kopuruak aplikatu ahal izanen dira hurrengo jarraiko bost urteetan burutuko diren zergaldietako likidazioetan.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa, derrigorrezko epearen barruan, emaitza positiboak lortzen dituen lehenengo ekitaldira arte geroratu ahal izanen da kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko ekitaldietako galerak izan eta baliabide berriak benetan jarriz onbideratzen dituzten entitateetan, hortakotzat hartzen ez delarik erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa."

Sei. 96. artikuluaren 2. zenbakiaren idazkera berria.

"2. Bazkideei egotzi beharreko oinarria zerga honetako arauen ondoriozkoa izanen da.

Bai administrazioaren ekintzen ondorioz, bai edozein errekurtso motatako ebazpenaren ondorioz likidazio oinarriaren zenbatekoan dagoen ondorengo edozein aldaketak berarekin ekarriko du, orobat, aldea bazkideei egoztea.

Likidazio oinarri negatiboak ez dira egotziko, sozietateak foru lege honen 40. artikuluari ezarritakoari jarraikiz eskuraturiko zerga oinarri positiboak gutxitu ditzaketelarik."

Zazpi. 110. artikuluaren 1. zenbakiaren idazkera berria.

"1. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta haien entitate kudeatzaileen gaineko urtarrilaren 5eko 1/1999 Legearen bidez arauturiko arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoek enpresen kapitaleko akzio eta partaidetzen eskualdaketatik lortzen dituzten errentagatik salbuespena gozatuko dute, Lege hartako 2.1 artikuluan ezarri bezala, enpresetan parte hartzen badute eta erosketatik salmentara bi urtetik hamaika urte bitarte iragan badira.

Lehenengo bi urtetan eta hamaikagarren urteaz geroztik ez da salbuespena aplikatuko."

Zortzi. 131. artikuluaren 1. zenbakiaren b) letraren idazkera berria.

"b) Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian multzoa osatzen duten sozietateek eskubidea izanen dute sozietate-multzoaren kitapen--oinarri negatiboak murrizteko, kitapen-oinarri horiek sortzeko lagundu duten proportzioan.

Murrizpen hau, sozietate-multzoaren kitapenoinarri negatiborik zehaztu den urtetik edo urteetatik kontatzen hasita, foru lege honen 40. artikuluan ezarritako epea betetzeko gelditzen diren zergaldietan banakako zerga-ordainketako araubidean zehazten diren zerga-oinarri positiboekin eginen da."

Bederatzi. 133. artikuluaren 2. zenbakiari c) letra gehitzea.

"c) Entitate batek bere ondare sozialaren zati bat zatitzen duenean, zati hori beste entitate batzuen kapital sozialaren gehiengoa egiten duten partizipazioz osatua badago, baldin eta zati hori beste entitate bati –sortu berria edo aurretik bazegoena– eskualdatzen dionean, eta horren trukean entitate eskuratzailearen kapitalaren balore adierazgarriak hartzen dituenean; hartutako balore horiek bere bazkideei egotzi beharko dizkio, bakoitzak zer partizipazio duen horren arabera, eta kapital soziala eta erreserbak behar den neurrian murriztuko dira, eta, hala badagokio, dirukonpentsazio bat eman beharko zaie bazkideei aurreko a) letran azaldu moduan".

Hamar. 133. artikuluaren 4. zenbakiaren idazkera berria.

"4. Jarduera-adartzat joko da ustiapen ekonomikoa ekarriko duen atonomidadun unitate ekonomikoa osatzen ahal duen ondare-multzoa, hau da, bere baliabide propioen bidez jarduteko gai izanen den multzoa. Eskualdatuko diren elementuen antolamendutik edo funtzionamenduak sorraraziko zorrak eratxiki ahal izango zaizkio sozietate eskuratzaileari."

Hamaika. 134. artikuluaren idazkera berria.

"134. artikulua. Eskualdaketaren ondoriozko errenten araubidea.

1. Aurreko artikuluak aipatutako eregiketen ondoriozko hurrengo errenta hauek ez zaizkio zerga oinarriari erantsiko.

a) Espainiako lurraldean egoitza duten entitateek bertan dauden ondasunak eta eskubideak eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak.

Erakunde eskuratzaileak egoitza atzerrian duenean, Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati loturiko elementuen eskualdaketak eratorriko errentak baino ez zaizkio erantsiko zerga oinarriari.

Elementu hauek Espainiako lurraldetik kanpora transferitzeak ekarriko du establezimendu iraunkorraren zerga-oinarrian sartzea, transferentzia egin den zergaldian, merkatuko balio arrunta eta ondoko artikuluak aipatu balioaren diferentzia, azken balio hori gutxiagotuz, kasua bada, ondoko zenbateko hauetan, amortizazioak eta balioaren beste zuzenketak, kontabilitatean jasoak eta zergetan kengarriak izan direnak.

b) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateek Europako Komunitatekoak ez diren estatuen lurraldeetako establezimendu iraunkorrak egoitza Espainiako lurraldean duten entitateei eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak.

c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateek Espainian egoitza duten establezimendu iraunkorrak eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak.

Entitate eskuratzaileak egoitza atzerrian duenean, Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati loturiko elementuen eskualdaketak eratorriko errentak baino ez zaizkio erantsiko zerga oinarriari.

Elementu hauek Espainiako lurraldetik kanpora transferitzeak ekarriko du establezimendu

iraunkorraren zerga oinarrian sartzea, transferentzia egin den zergaldian, merkatuko balio arruntaren eta ondoko artikuluak aipatu balioaren diferentzia, azken balio hori gutxiagotuz, kasua bada, ondoko zenbateko hauetan, amortizazioak eta balioaren beste zuzenketak, kontabilitatean jasoak eta zergetan kengarriak izan direnak.

d) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateek Europako Komunitateko kideak diren estatuen lurraldeetan kokatutako establezimendu iraunkorrak bertan egoitza duten entitateei eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak, bat egiteei, zatiketei, aktiboen ekarpenei eta akzioen trukeei ezarri beharreko zerga araubide amankomunari buruzko 1990eko uztailaren 2ko 90/434/EE Zuzentarauaren Eranskinean zehaztutako formaren bat dutenak eta berorren 3. artikuluan aipatutako zergaren bati loturik eta salbuespenik gabe daudenak.

Zerga oinarriari ez zaizkio aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako eragiketek eratorritako errentak ezabatuko, entitate eskuratzailea zerga honetatik salbuetsita egon edo errentak esleitzeko erregimenekoa bada.

Zenbaki honetan aipatutako eragiketek eratorritako errentak ezabatuko zaizkio zerga oinarriari entitate eskuratzailea karga tasa edo zerga araubide bereziaren onuraduna bada ere. Entitate eskuratzailearen onura den karga tasa edo zerga araubide berezia eta eskualdatzailearena diferenteak direnean, forma juridiko diferenteak dituztelako, eragiketa egin denean dauden ondare elementuak eskualdatzeagatik, eragiketa izan eta gero, eratorritako errenta ere linealean sortu dela ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, eskualdatutako elementua edukitzen den denboran. Errenta horretatik eragiketa egin arte sortutako zatiari ezarriko zaizkio entitate eskualdatzaileari legozkiokeen karga tasa eta zerga araubidea.

2. Aurreko zenbakian ezarritako araubideari uko egin ahal izanen zaio, ondare-elementu guztiak edo zati bat eskualdatzearen ondorio diren errentak zerga-oinarriari erantsiz.

3. Edozein modutan ere, nazioarteko itsas eta airenabigazioan diharduten entitateetan agerian agertuko diren itsasuntziak edota aireuntziak edo ustiapenerako ondasun higikorrak eskualdatzeak eratorritako errentak zerga oinarriari erantsiko zaizkio, erakunde eskuratzailearen egoitza Espainiako lurraldean ez dagoenean."

Hamabi. 144. artikuluaren 1. zenbakiaren idazkera berria.

"1. Kapitulu honetan ezarritako araubidea subjetu pasiboak aukeratuta, ondorengo baldintzak biltzen dituzten diru bidezkoak ez diren ekarpenetan ezarriko da:

a) Ekarpena jasotzen duen erakundeak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, jarduerak hortxe burutzea, ezarpen iraunkor baten bidez, zeini ekarritako ondasunak lotuko baitzaizkio.

b) Ekarpena egindakoan, ekarpena jasotzen duen entitatearen berezko fondoetan parte hartzea, %5ean gutxienez.

Ekartzen diren ondare-elementuak ezin izanen dira baloratu, zerga ondorioetarako, merkatuko balio arruntak jotzen duena baino balio handiagoarekin."

Hamahiru. Bigarren xedapen gehigarriaren idazkera berria.

Bigarrena. Finantza-aktiboei eta beste balore higikor batzuei dagozkien atxikipen, eskualdaketa eta betebehar formalei buruzko arauak.

1. Kapital higikorrean inplizitu edo esplizitu dauden etekinen gainean atxikipena egiteko betebeharraren ondorioetarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kontura, atxikipen hau ondorengo pertsona edo erakundeek egingo dute:

a) Arau bidez atxikitzeko betebeharra ezarrita duten finantza-aktiboen eskualdaketa edo berreskuraketan lortutako etekinetan, atxikitzaileak finantza-erakundea edo eragiketaren erantzule diren erakunde jaukitzaileak izango dira.

b) Tituluetan dokumentu gabeko eragiketei dagozkien eskualdaketetan lortutako etekinetan, eta finantza-erakunde bati eskatutako eskualdaketetan ere, atxikitzailea eskualdatzailearen kontura jokatzen duen banketxe, kutxa edo erakundea izango da.

c) Aurreko letretan bildu ez diren kasuetan, atxikipena egingo duen fede-emaile publikoaren eskuhartzea derrigorrezkoa izango da.

2. Atxikigai diren etekin inplizitudun titulu edo aktiboen besterenganaketari edo errenboltsoari ekiteko, horien aurretiazko eskuraketa egiaztatu beharko da fede-emaileen edo aurreko zenbakian aipatutako finantza-erakundeen eskuhartzearen bidez, eta zein salneurritan burutu zen eragiketa ere.

Aurreko lerroaldearen arabera, tituluaren edo aktiboaren edukitzaileari errenboltsatu egin behar ez dioten eragiketen jaulkitzaileak edo finantza-

erakunde erantzuleek kopuru horren araberako gordailua eratuko dute, epai-agintaritzaren esku geratuko dena.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea adierazten duten akzio edo partaidetzak eskualdatu edo diru-itzulketa egiten denean, entitate kudeatzaileek, administratzaileek, gordailuzainek, komerzializatzaileek edo aipatu eragiketen ardura duen beste edozeinek nahitaez egin beharko dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari dagokion atxikipena edo konturako dirusarrera, erregelamenduak ezarritako modu eta kasuetan.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari dagozkion konturako ordainketak –inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzen eskualdatzailearen kargura– egiteko betebeharra ezarri ahalko da, erregelamenduz.

4. Efektu publiko, balore edo bestelako titulu eta aktibo finantzarioen jaulkipen, harpidetza, eskualdaketa, truke, bihurketa, kitapen eta diru-itzulketan, eta horien gaineko eskubide errealei buruzko eragiketetan esku hartzen duten edo bitartekari diren fede-emaile publikoek, zerga administrazioari jakinarazi beharko dizkiote eragiketa horiek, eta esku hartzen duten subjektuen izenen zerrenda aurkeztu, beren helbidea eta identifikazio fiskalaren zenbakia zehaztu eta efektu publikoen, baloreen, tituluen eta aktiboen mota eta kopurua eta eragiketaren prezioa eta data eman; hori guztia erregelamenduz ezartzen den epean eta zehazten den ereduaren arabera eginen da.

Betebehar berbera izanen dute kredituko entitate eta establezimendu finantzarioek, balore sozietateek eta agentziek, bestelako finantza bitartekariek eta efektu publikoen, baloreen edo bestelako titulu eta aktibo finantzarioen, indizeen eta gerokoen edota horien gaineko aukeren bitartekaritzan eta ezarpenean aritu ohi den beste edozein pertsona fisiko edo juridikok; horretaz gainera, kontuko idazpenen bidezko dokumentuak, edozein balore edo efektu motaren bidez baliabideak hartu eta ezartzea zuzenean edo zeharka dakarten eragiketei dagokienez.

Era berean, inbertsio kolektiboko erankundeen sozietate kudeatzaileek ere jakinarazpen betebehar hori izanen dute, erakunde horietan dituzten akzio eta partaidetzei dagokienez.

Zenbaki honetan ezartzen diren jakinarazpen betebeharrak, bertan aipatzen diren –eta atxikipena duten– eragiketei dagokienez, betetzat joko dira hartzaileen zerrenda aurkezten denean, atxikipenen urteko laburpenaren eredu ofizialari lotuta.

5. Zerga administrazioari jakinarazi beharko diote metal eta objektu preziatuen, filateliarako balioa duten tinbreen, numismatikarako balioa duten piezen eskuraketa erakusten duten ziurtagirien, ordezkagirien edo dokumentuen jaulkipena, horrelako baloreetan inbertitzea sustatu ohi duten pertsona fisiko eta juridikoek.”

Hamalau. Lehenengo xedapen iragankorreko 2. zenbakiaren idazkera berria.

“2. Egokitzapena bizitza aseguruko kontratu baten bidez gauzatzen denean, enpresariek ordaintzen dituzten sariak kengarri izanen dira beraien zerga pertsonalean, sariak ordaindu diren ekitaldi ekonomikoan, betiere foru lege honetako 23. artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira. Salbuespena: pentsio konpromisoetarako fondoen kargura ordaindutako sariak, fondo horien dotazioa zergen aldetik kengarri izan baldin bazen behar zen garaian.

Hala ere, sarien zerga inputazioa jasotzen duten subjektu pasiboek ez dituzte sariok sartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian, inputatutako kopuruaren kenketa egin den zergaldian. Horrek ez du eragotziko aseguru kontratuen onuradunek jasotzen dituzten prestazioen aurreragoko tributazioa, pentsio planen ordezko diren gizarte prebisioko sistemen arloan indarra duen arautegiak xedaturikoaren arabera.

Zenbaki honetan xedatutakoak ez du alde batera uzten azaroaren 8ko 30/1995 Legeko hamabosgarren xedapen iragankorreko 5. zenbakiak dioena.”

Hamabosgarrena. Indarrik gabe utzi da hamaseigarren xedapen iragankorreko 2. zenbakia.

**3. artikulua.** Kooperatiben zerga araubidea.

2000. urteko urtarrilaren 1ean hasten diren zergaldiei dagokienez, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 21. artikuluak eduki hau izanen du:

“21. artikulua. Galeren konpentsazioa.

1. Aurreko artikuluak aipatzen duen batuketa algebraikoa negatiboa bada, dagokion zenbatekoa konpentsa daiteke hurrengo hamar urteetan bukatzen diren zergaldietako kuota osoekin, positiboak direnean. Konpentsazioa egiten bada, kuota negatiboen zergaldiek ez dutela preskribitu ulertuko da, dagokion konpentsazioa kuantifikatzeko, besterik ez.

2. Kooperatiba sortu berrietan, aurreko zenbakiak aipatzen duen konpentsazio epearen konputua atzeratu ahal izanen da kuota positiboak dituen lehen zergaldiaren hasieraraino."

**4. artikulua.** Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Bat. 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-gaiei dagokienez, Oinordetzen eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorrei buruzko Arauetako (Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez onetsitako arauak) 191.2 artikuluaren bigarren lerroaldea aldatu da. Eduki hau izanen du:

"Xedapen honetatik kanpo daude 29. artikuluko 1, 2 eta 10. zenbakietan salbuetsitzat jotako egintza eta zenbatekoak; horiek, salbuetsitzat jotako kopuruaren arabera, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordainduko dute 100eko 0,80ko tasarekin, baita dokumentu pribatuetan ageri badira ere."

Bi. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-gaiei dagokienez, 23/1998 Foru Legearen 3.2 artikuluko 4. tarifa aldatu da. Hona hemen:

4. Laugarren graduko zehar-ahaidetasunak:

| Likidazio oinarria | Karga tasa |
|---|---|
| 1.000.000 arte | % 11,00 |
| 1.000.001etik 2.000.000ra | % 12,00 |
| 2.000.001etik 5.000.000ra | % 13,00 |
| 5.000.001etik 10.000.000ra | % 15,00 |
| 10.000.001etik 15.000.000ra | % 17,00 |
| 15.000.001etik 20.000.000ra | % 20,00 |
| 20.000.001etik 25.000.000ra | % 23,00 |
| 25.000.001etik 50.000.000ra | % 26,00 |
| 50.000.001etik 100.000.000ra | % 35,00 |
| 100.000.001etik 300.000.000ra | % 38,00 |
| 300.000.001etik 500.000.000ra | % 41,00 |
| 500.000.001etik aurrera | % 44,00" |

**5. artikulua.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

1. 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-gaiei dagokienez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren inguruko xedapenen Testu Bategina osatzen duten artikulu hauek aldatu dira:

Bat. 3.2.A) artikulua.

"A) Zorren ordainketan emandako edo zorrak ordaintzeko adjudikazioak, bai eta zorrak nork bere gain hartzea ordaintzeko adjudikazioak ere. Zorrak ordaintzeko adjudikaziodunak, baldin eta adjudikatu zitzaizkien ondasun edo eskubide berberak, bi urteko epean, hartzekodunari kredituaren kaudimenez eskualdatu izana frogatzen badute, eta epe berberean xede horretarako hirugarren bati eskualdatu dizkiotela frogatzen dutenek, adjudikazio horiengatik ordaindutako zerga itzul dakiela eskatu ahal izanen dute."

Bi. 35.II.6 artikulua.

"6. Urriaren 20ko 12/1992 Foru Legearen xedapen gehigarrietatik hirugarrena, arrisku kapitaleko sozietateak eta fondoak eratzeari eta haien kapital gehitzeari dagokienez, sozietate-eragiketaz denaz bezainbatean, baldin eta haiei buruzko arau zehatzetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak betetzen badira."

Hiru. 35.II.7 artikulua.

"7. Inbertsio eta jarduera ekonomikoen sustapenari eta zergen arloko beste neurri batzuei buruzko azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 27. artikuluak, uztailaren 7ko 19/1992 Legean ezarritako hipoteka-tituluetako fondoak jartzeko egiten diren "sozietate-eragiketei" dagokienez."

Lau. 35.II.8 artikulua.

"8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen hamahirugarren xedapen gehigarria."

Bost. Xedapen iragankorra.

"Azken xedapenetatik lehenengoan xedatu dena hala izanik ere, harik eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga berriak indarra hartu arte, dohaintzek eta irabazizkoak diren gainerako "inter vivos" eskualdaketek, Oinordetzen eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergak ordainarazteari buruzko Arauei eta haien osagarri diren xedapenei loturik jarraituko dute; arau horiek Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez onetsi ziren."

2. Aurreko legeriari jarraikiz eratutako sozietateek, urtarrilaren 5eko 1/1999 Legean ezarritako epeetan, lege horretan ezarritakoa bete ahal izateko beharrezkoak diren egintza eta dokumentuak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergatik salbuetsita egonen dira.

**6. artikulua.** Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea.

2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-gaiei dagokienez, fundazioen eta babes jardueren

tributu araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen artikulu hauek aldatu dira:

Bat. 18.2 artikulua.

"2. Ustiapen ekonomiko batean lorturiko emaitzei karga ezarriko zaie, nahiz eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak arestian aipatu den salbuespena etekin hauei ere aplikatu ahalko dien, baldin eta etekin horien lorpide izandako ustiapen ekonomikoak entiatearen berariazko helburu edo xedearekin bat badatoz, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera.

Horretarako, ustiapen ekonomikoak entitatearen berariazko helburu edo xedearekin bat datozela ulertuko da, ustiapen horietan egiten diren jarduerek foru lege honen 2. artikuluko xedeak betetzeari begiratzen diotenean, salbuespen horretaz baliatzeak jarduera bereko enpresekiko lehiakortasunean distortsiorik sortzen ez duenean eta hartzaileak pertsona talde orokorrak direnean.

Salbuespena eraginkorra izan dadin, aurretik ustiapeneko jardunaren berri eman beharko zaio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari; Departamentuak aurreko lerroaldeetan aipaturiko baldintzak betetzen diren egiazta dezake.

Hala ere, salbuespena izanen dute, erregelamenduz ezarriko den moduan, hurrengoek: berariazko helburu edo xedearekin bat datozen ustiapen ekonomikoek, gizarte laguntzako jarduerak direnean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17. artikuluan ezarritako modu eta mugen arabera, azkenik aipaturiko zerga horretatik salbuetsita badaude, dagokion arautegian ezarritakoari jarraikiz."

Bi. 33.4 artikulua.

"4. Entitate hartzailearen aktiboaren zati izan behar duten eta bere helburuak lortzeko jardueretan lagungarri diren ondasunen dohaintza garbi eta soilak."

Hiru. 37.4 artikulua.

"4. Entitate hartzailearen aktiboaren zati izan behar duten eta bere helburuak lortzeko jardueretan lagungarri diren ondasunen dohaintza garbi eta soilak.

**7. artikulua.** Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legean araututa dauden garapenerako gobernuz kanpo erakundeen eta egiten zaizkien ekarpenen zerga araubidea.

1. Fundazioen zerga araubidea, 10/1996 Foru Legean erregulatua, 23/1998 Legearen 33. artikuluak aipatu erregistroetan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpo erakundeei aplikatuko zaie, baldin eta zehaztutako forma juridikoa badute eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

2. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina onetsi zuen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 35.I.A.c) artikuluan ageri den salbuespen subjektiboa, bertan aipatzen diren entitateei aplikatuko zaie, baldin eta manu horrek garapenerako lankidetzaren esparruan aipatzen dituen jarduerak egiten badituzte.

3. 23/1998 Legearen 9. artikuluan ageri diren garapenerako lankidetza jarduerak gizarte laguntzako jardueratzat hartzen dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17. artikuluan ageri den salbuespenaz baliatu ahal izateko.

4. Pertsona fisiko eta juridikoek 10/1996 Foru Legearen aplikazio esparruan zehaztu diren garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei egindako ekarpenek eskubidea emanen dute foru lege horren II. tituluko I. eta II. kapituluetan ageri diren pizgarriez baliatzeko.

5. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, erakundeek 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen XII. kapituluan ezarritakoa izanen da.

**8. artikulua.** Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasak.

1. 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-gaiei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko foru legearen Testu Artikulatua onetsi zuen uztailaren 24ko 144/1987 Legegintzako Foru Dekretuan zenbait aldaketa egin da:

Bat. 85. artikuluaren idazkera berria.

"85. artikulua. Tarifak.

1. Honako tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

a) Ikuskatzea, ateak irekitzea eta ur-garraioa:

| Egindako zerbitzua | Tarifa bakarra (pezetatan) |
|---|---|
| Ikuskatzea | 4.000 |
| Ateak irekitzea | 7.000 |
| Ur-garraioa | 550 PTA./$m^3$ |

b) Ur-xukatzea, kanalizazioak libratzea, eraikuntzen saneamendua, eraispenak, prebentziozko erretenak arrisku bereziko egoeretan eta antzeko beste batzuk:

| Eramandako baliabidea | Prebentzioa (PTA/orduko) | Erabiltzea (PTA/orduko) |
|---|---|---|
| Autoponpa | 5.500 | 7.500 |
| Autoponpa depositoduna | 5.800 | 8.700 |
| Autoeskailera edo autobeso automatikoa | 10.000 | 12.900 |
| Ontziak eta uretako ekipoak | 7.500 | 8.500 |
| Motoponpak | 400 | 600 |

Erabiltzen diren motoponpen tasa prebentzio gisa ezarritakoari gehituko zaio beti.

Ordu kopurua zehazteko, baliabideak irteten direnetik hasi eta dagozkien parkeetara itzultzen diren arteko denbora hartuko da kontuan.

c) Aire konprimituko ontziak berriz betetzea:

– Maneiatzea: 275 pezeta/unitate bakoitzeko.

– 200 kg./cm$^2$-ko presioan dauden botilak: 30 pezeta ontziaren edukiera-litro bakoitzeko.

– 300 kg./cm$^2$-ko presioan dauden botilak: 45 pezeta ontziaren edukiera-litro bakoitzeko.

2. Aurreko tarifa horietan zehazturiko zerbitzuek laguntza teknikotzat jotzen direnean bakarrik izanen dute karga.”

Bi. VI. tituluko II. kapituluaren izen aldaketa.

VI. tituluko II. kapituluaren izena aldatu egin da; aurrerantzean “Jokuari, ikuskizun publikoei eta josteta jarduerei dagozkien tasak” izanen da.

Hiru. 90. artikuluaren idazkera berria.

“90. artikulua. Tarifak.

Tasak tarifa hauen araberakoak izanen dira:

a) Joko enpresen erregistroan inskribatzea: 6.000 pezeta.

b) Joko eta Josteta Makinen Modeloen erregistroetan homologatu eta inskribatzea: 25.000 pezeta.

c) Aurreko letran aipatutako erregistroetako homologazioa eta inskripzioa aldatzea: 12.500 pezeta.

d) Jokorako bestelako materialen homologazioa: 15.000 pezeta.

e) Bingo aretoak ustiatzeko baimena: 300.000 pezeta.

f) Bingo aretoak ustiatzeko baimena berritzea: 140.000 pezeta.

g) Agiri profesionalak ematea: 3.000 pezeta.

h) Joko aretoak ustiatzeko baimena: 60.000 pezeta.

i) Joko aretoak ustiatzeko baimena berritzea: 28.000 pezeta.

j) Joko makinak jartzeko baimena: 25.000 pezeta.

k) Joko makinen titulartasunaren aldaketak eta truke fiskalak: 5.000 pezeta makina bakoitzeko.

l) Zozketa, tonbola eta ausazko konbinazioak baimentzea: 8.000 pezeta.

m) Jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak baimentzea:

– Zezen-ikuskizunak:

1. Zezenketak, burtziekiko zezenketak, mistoak, eta pikatzaileekiko nobilladak egiteko baimenak: 5.000 pezeta ikuskizun bakoitzeko.

2. Pikatzailerik gabeko nobilladak egiteko baimena: 3.000 pezeta ikuskizun bakoitzeko.

3. Zezen ikuskizunetarako bestelako baimenak: 2.000 pezeta ikuskizun bakoitzeko.

– Leku publikoetan jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak egiteko baimena: 6.000 pezeta baimendutako ikuskizun edo jarduera bakoitzeko.

n) Jendaurreko ikuskizun eta josteta jardueretako enpresen erregistroan inskribatzea: 6.000 pezeta.

ñ) Zezen-ikuskizunetako profesionalen erregistroan inskribatzea: 3.000 pezeta.”

Lau. IV. tituluari III. kapitulua eranstea.

“III. KAPITULUA
Foruzaingoak egindako zerbitzu eta jarduerek sortutako tasak

90. bis artikulua. Zergagaia.

Tasaren zergagaia da artikulu honen 4. idatz-zatian aipatutako zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira artikulu honen 4. idatz-zatian aipatutako zerbitzuak eta jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Sortzapena

Tasa zerbitzua eman edo jarduera egiten den unean sortuko da. Halere, eskabidea aurkezten denean eskatuko da.

4. Tarifak.

Tasa tarifa hauen araberakoa izanen da:

4.1. Kirol proben zainketa, segurtasuna eta laguntza:

a) Txirrindu lasterketak, etapa bakoitzeko:

| KATEGORIAK | PEZETAK |
|---|---|
| Eskolak | 15.000 |
| Kadeteak | 50.000 |
| Gazteak | 60.000 |
| 23 urtez beherakoak | 65.000 |
| Elitea | 0.000 |
| Masterra | 70.000 |
| Helduak | 65.000 |
| Emakumeak | 60.000 |
| Profesionalak | 140.000 |
| Kirolari txirrindulariak | 65.000 |

b) Zikloturisten martxak eta bestelako kirol probak: 30.000 pezeta.

4.2. Eremu publikoetan egiten diren bestelako jardueren zainketa, segurtasuna eta laguntza: 25.000 pezeta.

4.3. Foruzaingoak emandako txostenak: 6.000 pezeta.”

Bost. 124.2 artikuluaren idazkera berria

“Farmazia arloko establezimenduak:

| A) Farmaziak | |
|---|---|
| Ezartzeko baimena | 25.000 |
| Lokaletarako baimena | 15.000 |
| Titulartasuna aldatzeko baimena | 5.000 |
| Praktika Onen menpeko jardueren egiaztapena | 25.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| B) Pertsonen eta animalien sendagaiak banatzeko biltegiak | |
|---|---|
| Ezartzeko baimena | 25.000 |
| Lokaletarako baimena | 20.000 |
| Titulartasuna aldatzeko baimena | 5.000 |
| Banaketaren Praktika Onak ikuskatu eta egiaztatzea | 50.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| C) Botika zerbitzuak | |
|---|---|
| Ezartzeko baimena | 25.000 |
| Lokaletarako baimena | 15.000 |
| Titulartasuna aldatzeko baimena | 5.000 |
| Praktika Onen menpeko jardueren akreditazioa | 50.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| D) Botikinak eta sendagaien gordailuak | |
|---|---|
| Ezartzeko baimena | 10.000 |
| Aldatzeko baimena | 5.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 5.000 |

| E) Pertsonentzako sendagaiak fabrikatzen dituzten industriak | |
|---|---|
| Fabrikazio Egokiaren Arauak ikuskatu eta egiaztatzea. Ikuskatzen edota egiaztatzen emandako egun bakoitzeko | 50.000 |
| Publizitaterako baimena | 10.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| F Kosmetikoak | |
|---|---|
| Fabrikazio Egokiaren Arauak ikuskatu eta egiaztatzea. Ikuskatzen edota egiaztatzen emandako egun bakoitzeko | 50.000 |
| Merkatuan Jartzearen Arduradunen erregistroan inskribatzea | 2.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| G Osasun produktuak | |
|---|---|
| Optikak eta Botiketako optika atalak jartzeko baimena | 25.000 |
| Audioprotesien zentroak ezartzeko baimena | 25.000 |
| Ortopediak jartzeko baimena | 25.000 |
| Osasun produktuen banatzaileentzako baimena | 25.000 |
| Publizitaterako baimena | 10.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| H) Laborategiak, sendagaien kontrol edota garapen zentroa | |
|---|---|
| Laborategiko Praktika Onak ikuskatu eta akreditatzea. Ikuskatzen edo akreditatzen emandako egun bakoitzeko | 50.000 |
| Klinikako Praktika Onak ikuskatu eta egiaztatzea. Ikuskatzen edo egiaztatzen emandako egun bakoitzeko | 50.000 |
| Bestelako ikuskapenak | 10.000 |

| I) Bestelako jarduketak | |
|---|---|
| Farmazia zentro eta produktuei buruzko txostenak, interesatuak eskatuak | 10.000” |

2. 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, zirkulatzeko baimen bereziak emateko tasak, haien tarifak uztailaren 24ko 144/1987 Legegintzako Foru Dekretuaren 128.5 artikuluan azaltzen baiti-

ra, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak eskatuko ditu.

**9. artikulua.** Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

1. 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. eranskineko zergaren tarifak aldatuko dira, ondoren azaldu bezala:

Bat. 843.6 epigrafea sortu da lehenbiziko sekzioan:

"843.6 epigrafea.- Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoa.

Kuota: 48.318 pezeta.

Oharra: epigrafe honetan sartzen dira ibilgailuen ikuskaritza teknikoaren zerbitzu publikoa erregulatzen duten arau administratiboetan finkatutako jarduera guztiak, tokiz tokiko estazioen bitartez kontzesio eremuan egiten direnak barne".

Bi. 975 multzoa sortu da lehenbiziko sekzioan.

"975 multzoa. Markoan jartzeko zerbitzuak.

Udalaren gutxieneko kuota:

– 100.000 biztanlez gorako herriak: 33.586 pezeta.

– 10.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herriak: 19.768 pezeta.

– Gainerako herriak: 14.800 pezeta.

Oharrak:

1. Multzo honetan sartzen dira mota guztietako markoak diseinatzea, sortzea eta haiei buruzko aholkularitza, hala nola markoak eta haien osagarriak saltzea.

2. Multzo honek ahalmena ematen du markoak eta haien osagarriak maneiatu eta muntatzeko, norberak edo hirugarrenek, betiere haien saltokietan merkaturatzen baldin badira.

3. Multzo honetan sailkatutako subjektu pasiboek zilegi izanen dute, hari emandako kuotari % 25 gehituz gero, modu osagarrian, markoan jar daitezkeen balio txikiko produktu eta materialak saltzea, adibidez, koadroak, laminak, litografiak, grabatuak, kristalak, ispiluak eta antzeko batzuk."

Hiru. 44 taldea sortu da bigarren sekzioan.

"44 taldea. Hirigintzako proiektuak eta topografiako jarduketak garatzeko goi mailako teknikariak.

441 multzoa. Hirigintzako proiektuak eta topografiako jarduketak garatzeko goi mailako teknikariak.

Kuota: 21.528 pezeta."

Lau. 3. ohar komuna erantsi zaio bigarren sekzioari.

"3. Sekzio honetan sailkatutako jardueretatik heldu diren zerbitzuek 0 kuotaren arabera tributatuko dute, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legean aipatutako fundazioei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei bakarrik eta kontraprestaziorik gabe ematen zaizkienean. "

2. Zergaren Jarraibidearen 14.1.G) arauaren i) letra –jarraibide hori maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen II. eranskinean dago– aldatu egin da ondoren azaldu bezala:

"i) G) letra honetan araututako tributu elementua ez da kuotak zehazteko aplikatuko, baldin eta kuota horiek kalkulatzeko, zergaren tarifek berariaz kontuan hartu badute tributu elementu gisa jarduerak egiten diren lokalen azalera, metro karratutan adierazia.

Beraz, tarifen lehenbiziko sekzioaren 647.2, 647.3 eta 647.4 epigrafeen kasuan gertatzen den bezala, tarifen hainbat errubrikaren azalpenean metro karratuei egiten zaien aipamena, haietan bildutako jarduerak definitu eta sailkatzeko egiten da bakarrik, eta metro karratuen aipamena ez da, inola ere, dagokion kuota osatzen duen tributu elementutzat hartuko. Hortaz, aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da kasu hauetan aplikatuko."

3. Subjektu pasiboek, aurreko 1 zenbakiko idatz-zatian ezarritako aldaketen ondorioz Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruz duten egoera aldatzen baldin bazaie, dagokien deklarazioa aurkeztuko dute Jarduera Ekonomikoen edo Lizentzia Fiskalaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren 5., 6. edo 7. artikuluei jarraikiz, kasuen arabera.

**10. artikulua.** Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162. artikuluaren 1 zenbakia honela geldituko da:

"1. Zerga ondoko tarifa laukiaren arabera eskatuko da:

Kuotak:

a) Turismoak:

– 8 zaldi fiskal baino gutxiago: 2.147 pezeta.

– 8 zaldi fiskaletik 12ra bitarte: 6.041 pezeta.

– 12 zaldi fiskaletik 16ra bitarte: 12.886 pezeta.

– 16 zaldi fiskal baino gehiago: 16.112 pezeta.

b) Autobusak:

– 21 jarleku baino gutxiago: 15.032 pezeta.

– 21 jarlekutik 50era bitarte: 21.478 pezeta.

– 50 jarleku baino gehiago: 26.846 pezeta.

c) Kamioiak:

– 1.000 kiloko karga erabilgarri baino gutxiago: 7.524 pezeta.

– 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999ra bitarte: 15.032 pezeta.

– 2.999 kiloko karga erabilgarritik 9.999ra bitarte: 26.846 pezeta.

d) Traktoreak

– 16 zaldi fiskaletik behera: 3.763 pezeta.

– 16 zaldi fiskaletik 25era bitarte: 7.524 pezeta.

– 25 zaldi fiskaletik gora: 15.032 pezeta.

e) Atoiak eta erdi-atoiak

– 1.000 kiloko karga erabilgarritik behera: 3.763 pezeta.

– 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999ra bitarte: 7.524 pezeta.

– 2.999 kiloko karga erabilgarritik gora: 15.032 pezeta.

f) Bestelako ibilgailuak:

– Ziklomotoreak: 542 pezeta.

– 125 cc.rainoko motorrak: 813 pezeta.

– 125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motorrak: 1.345 pezeta.

– 250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motorrak: 2.656 pezeta.

– 500 cc.tik 1000 cc.ra bitarteko motorrak: 5.311 pezeta.

– 1.000 cc.tik gorako motorrak: 10.623 pezeta.

### Xedapen gehigarriak

**Lehenbizikoa.** Biescasko uholdeek sortutako kalte pertsonalak konpontzeko laguntza publikoen salbuespena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

1. 1996ko abuztuaren 7ko uholdeek Biescasko udalerrian sortutako kalte pertsonalak konpontzeko laguntza publikoak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsirik egonen dira.

2. 1999ko zergaldiari eta preskribitu ez diren aurrekoei ere salbuespen hori aplikatuko da.

**Bigarrena.** Inbertsioetarako erreserba berezia.

Subjektu pasiboek zilegi izanen dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. tituluaren XI. kapituluko 2. sekzioan aipatutako erreserba bereziari dotazioak egitea, 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenbiziko bi ekitaldietan lortutako kontabilitate etekinen kargura.

**Hirugarrena.** Epaiz ezgaitutako minusbaliatuen araubidea.

Zergei dagokienez, epai bidez ezgaitutako minusbaliatuek duten minosbaliotasuna ehuneko 65ekotzat edo gehiagokotzat joko da.

**Laugarrena.** Ez dira berandu ordaindutakotzat hartuko Nafarroako administrazio publikoen ogasunei finantza entitateen bidez 1999ko abenduaren 31an egin beharreko ordainketak, baldin eta betebehar horiek 2000. urteko lehen egun baliodunean egiten badira.

### Xedapen iragankorrak

**Lehenbizikoa.** Salbuespena kalte fisiko edo psikikoengatik.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 7. artikuluko p) letran aurreikusitako salbuespena, foru lege honen 1. artikuluan emandako idazkeraren araberakoa, 1999ko zergaldiari eta preskribitu ez diren aurrekoei aplikatuko zaie, irmo bilakatu diren jarduketa administratiboak izan ezik.

**Bigarrena.** Foru lege honek indarra hartu aurreko zerga oinarri negatiboak.

Foru lege honek indarra hartzen duen zergaldia hasten denean konpentsatzeko zain dauden zerga oinarri negatiboek, hurrengo hamar urteetan bukatzen diren zergaldiei dagozkien zerga oinarri positiboak murriztu ahalko dituzte. Hamar urte horiek kontatzen hasiko dira zerga oinarri negatiboak zehaztu ziren zergaldiaren ondoko zergaldia hasten denean.

**Hirugarrena.** Hartzaileak arriskua hartzen dueneko bizi-aseguruaren kontratuaren egokitzapena.

Bizi-aseguruen kontratuek, hartzaileak harzten baldin badu inbertsioaren arriskua eta 2000. urteko urtarrilaren 1a baino lehen egiten badira, bi hilabeteko epea izanen dute, egun horretan hasita, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoari egokitzeko. Epe hori bukatutakoan, egokitu gabeko kontratuek aipatu Foru Legearen 78.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz tributatuko dute.

**Laugarrena.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 48. eta 134. artikuluetan sartutako aldaketen araubide iragankorra.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 48. eta 134. artikuluetan foru lege honen bidez sartutako aldaketak 1999ko urriaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

**Bosgarrena.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 6. puntuko b) letran sartutako aldaketaren araubide iragankorra.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 6. puntuko b) letran sartutako aldaketa 1999ko zergaldian aplikatuko da.

### Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Lehenbizikoa.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2000. urteko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..........................................................................................................................

*Helbidea* ..................................................................................................................................

*Telefonoa* ............................................................ *Hiria* ........................................................................

*P. K.* ............................................................ *Probintzia* ........................................................................

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).
Lege Gordailua: NA—363-1995
Paper ekologiko birziklatua